

69

3 euro • 2002ko EKAINA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: ORLANDO MARTI-  
NEZ ETA OSCAR ROMERO • GEHIGA-  
RRIA: HAUR-JOLASEN ABESTIAK III  
• TEKNOLOGIA BERRIAK: INTERNET  
GELA BARRUAN • ANTZERKIA




GATA

Ingelesaren


ezarpen goiztiarra eztabaidagai

# Lehen Mailako Hezkuntza

# LMMH



**Kometa  
Ibiltaria  
Proiektua**



**3.** eta **4.** mailetakoko material berriak:  
**E**uskara arloan, **I**nguruaren **E**zagueran,  
**M**atematikan eta **E**rlijio **K**atolikoan.



gaia

## INGELESAREN

### EZARPEN GOIZTIARRA EZTABAIDAGAI

Ingelesaren ezarpen goiztiarrak EAEn ez bezalako kezka sortu du Nafarroan. Horren haritik egin zen Ingelesa Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzan ezartzearen gaineko jardunaldia.



elkarrizketa

## ORLANDO MARTINEZ OSCAR ROMERO

Kubako Gramako Unibertsitateko irakasleek hango hezkuntzari buruz hitz egin digute.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## INGELESAREN

### ezarpen goiztiarra eztabaidagai

Ingelesa Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzan ezartzearen gaineko jardunaldia

14 elkarrizketa

Orlando MARTINEZ  
Oscar ROMERO

19 gehigarria

Haur jolasen abestiak III

30 esperientzia

Antzerkia oholta gainean eta eguneroko bizitzan

32 teknologia berriak

Internet gela barruan?

Iker Laskibar

35 berriak

36 nobedadeak

eta orain... jolas eta abesti gehiago!

38 ikasmaterialak

Txanela Proiektua

40 argitalpenak

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08


Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estarba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAMGrafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZ S.A.L. Azaleko irudia: Orlando Martinez eta Oscar Romero (Ikor Kotx).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002 /VI/7. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



# IKASTURTEKO AGENDAK

EUSKARA HUTSEZ

## IRAKASLE AGENDA



- astea bistan
- tutoretza orriak
- ebaluazioetarako taulak
- argazkietarako taulak
- gida pedagogikoa:  
ikastetxeak,  
baliabideak,  
administrazioa...  
1000 helbide baino gehiago
- paper birziklatuz egina

## LIZEO AGENDA



- astea bistan
- ikasgaien jarraipena
- DBHko ikasleentzat egokituta
- gasteentzako informazio  
orokorra
- paper birziklatuz egina

## IKASLE AGENDA



- astea bistan
- ikasgaien jarraipena
- LMHko ikasleentzat egokituta
- guraso eta irakasleen arteko  
komunikazioak
- paper birziklatuz egina

Informazio gehiago nahi izanez gero, pertsonalizazioen edota kopuruen araberako deskontuen inguruan, deitu iezaguzue.

Agenden eskaera egiteko:

posta@artez.net -era idatzi, orri hau bidali edo deitu 94 448 00 00ra.

Eskerrrik asko.

Ikastetxea \_\_\_\_\_ Herria \_\_\_\_\_ IFK \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_ Arduraduna \_\_\_\_\_

Agenda mota \_\_\_\_\_ Kopurua \_\_\_\_\_ Hornitzeko:  uztaila  abuztua  iraila

Agenda mota \_\_\_\_\_ Kopurua \_\_\_\_\_ Hornitzeko:  uztaila  abuztua  iraila

Agenda mota \_\_\_\_\_ Kopurua \_\_\_\_\_ Hornitzeko:  uztaila  abuztua  iraila

# editoriala ekaina

## Merezi al du prestakuntza euskaraz eskaintzea?



UEU udako euskal ikastaroen erreferente historiko eta nagusi bada, horren osagarri, hezkuntza ez unibertsitarioren esparruan bere aletxo jarri nahi du HIK HASIk.

Prestakuntza arloan ahalegin handiak egiten dira ikasturtean zehar eguneroko lanari modu egokian erantzun nahian. Baina, zein hizkuntzatan eskaintzen da prestakuntza?

EAEn, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak GARATU bidez bideratzen du eskaintza. Gaur egun eskaintza horren %15 inguru da euskaraz. Arlo pribatuan, berriz, HOBETUZen esku dago eskaintza handiena eta ez da aurrekoaren portzentaiara ere iristen.

Nafarroan eta Iparraldean, kasu oso konkretuak ez badira, euskara desagertuta dago prestakuntza esparruan. Eta kasu konkretuak bilatzerakoan, Ikastolen Elkartearekin egiten dugu topo. Bera da Euskal Herri osoan euskarazko prestakuntza plan zehatz eta zabala duena, ikasturtean zehar 50etik gora ikastaro, mintegi eta abar garatzen dituelarik.

Eta udan, zer gertatzen da udan?

Tradizioz, UEU izan da prestakuntza euskaraz garatu duen ia bakarra. Erakunde hori hastapeneko ikastaroe-

tan euskararen inguruan aritu bazen, gaur egun edozein gai garatzen du euskaraz: ekonomia, informatika, fisika... Horrez gain, azken urte hauetan urrats berria eman du, udan soilik eskaintzen zuena urte osoan zehar zabalteari ekin dio, eta edonoiz ikus ditzakegu UEUK antolatutako ikastaroak, mintegiak, jardunaldiak eta abar.

EHUko uda ikastaroak dira gai gehiena eta ikasle kopuru handiena jasotzen dutenak. Eskaintza zabal horretan erabilitako hizkuntza ia bakarra gaztelania da, ordea. Aurtengo paradoxa zera da: EAeko unibertsitate publikoak izanik, ingelesezko eskaintza euskarazkoa baino zabalagoa dela.

Nafarroako bi unibertsitateek, publikoak nahiz pribatuak, bere eskaintza egiten dute udarako eta biek euskara ahaztua dute.

Bere 25. urteurrena ospatzeko, UNED Bergarak ere udako lehen ikastaroak antolatu ditu lehendabizikoz.

UEU udako euskal ikastaroen erre-

ferente historikoa eta nagusia bada, horren osagarri, hezkuntza ez unibertsitarioaren esparruan bere aletxo jarri nahi du HIK HASIk. Aurtun, eskaintza zabala eginez, 762 lagun inguratuko dira uztailearen 2, 3 eta 4an elkarrekin aritzera eta euren bizipen eta proiektuak besteekin konpartitzera.

Euskal Herrian gero eta irakasle gehiagok irakasten eta hezten du euskaraz. Zergatik, bada, ez jaso prestakuntza lana egiten duten hizkuntzan?

Nafarroa eta Iparraldeko egoera zein den ikusirik, badirudi EAEn eskaintzen den prestakuntza egokia dela. Goiko lerroek garbi adierazten dute, ordea, egoeraren larritasuna.

Entzuna dugu EAeko Hezkuntza Sailaren asmoa legealdi honen amaierarako (4 urteko plana) GARATUren euskarazko eskaintza %50ekoa izatera iristea dela. Asmoa zuzena eta ona izanik, gauzatuta ikusi nahiko genuke. Eta gu, orain arte bezala, laguntzeko prest gaituzue.

# kronika

**Datorren ikasturtean ikastola berria irekiko du Seaskak Hiriburun, baldin eta Akademia Ikuskaritzak oniritzia ematen badio. Max Brisson Miarritzeko hautetsi eta Hitzarmen Bereziko Hizkuntza ataleko arduradunaren bidez egin dio eskaera Seaskak Ikuskaritzari, eta honen esku dago azken erabakia. Izan ere, ikastolan sortuko den lanpostu berriaren ordainketa Ikuskaritzaren esku geldituko litzateke.**

**Hasteko, gela prefabrikatu batean hasiko dira ama eskolako haurrentzako gela batekin eta irakasle batekin.**

**Eraikuntzaren arazoa Iparraldeko ikastola gehiagok ere badute, eta ikastola guztien arteko elkarte bat sortu dute obragintza eta jabegoa kudeatzeko. Horrela, Hazparneco Ezkia ikastola berria egiteko diruaren zati bat lortu dute eta datorren urtarrilerako eraikin berria eginga izanen da. Donibane Garazin, bestalde, 2003ko irailerako izanen dute ikastola berria.**



## Haur Hezkuntzaren arautzearen kontrako jarrerak nagusi dira EAEn

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 0-3 urteko haurren eskolatzea arautzen duen dekretua atera izanak ez ditu denak gustura utzi. 0-3 Mahaiaren esanetan ez dute gizarte eragileekin kontaktu, eta dekretuari egin dizkioten emendakinak ere ez dira aintzat hartu.

Sindikatuak ere ez dira batere gustura gelditu. ELAren iritiz ez da benetako negoziatorik egon dekretua egiteko garaian, otsailaren 13az geroztik bildu gabe baitzegoen zirriborroak aztertzeke eratu zen batzorde teknikaria.

Besteak beste gizarte eskaerei ez diela erantzuten dio sindikatu honek, eta ezta 0-3 bitarteko haurrentzako behar diren postu guztiak betetzeko premia sozialari ere. Horren ildotik, hiru urtera arteko haurren premia guztiak asetzeko eskatzen du, eta finantzazioa hiru urtetik aurrerako hezkuntza siste-

man erabiltzen diren mekanismo berekin egitea.

CCOO sindikatuaren ustetan dekretua "euskal eskola publikoren aurkako eraso larria da", gaur egun indarrean dauden 2 urteko gelak desagerraraziko dituelako. Horregatik, proiektua bertan behera utz dezala eskatu dio Hezkuntza Sailari.

Nafarroan, berriz, adin tarte hori arautuko duen dekretua egin gabe dago oraindik, eta horren eske ari dira sindikatuak, guraso elkarteak, haur eskoletako langileak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Psikologia eta Pedagogia Saila. Nafarroako Gobernuari eskatzen diote ziklo hori Hezkuntza Departamentuak hartzea bere gain, eta ez orain arte bezala Ongizate Departamentuak.

0-3 urteko Nafarroako haurren hezkuntza eskubideen aldeko agiria sinatu dute Iruñerriko haur eskoletako langileak, NUPeko Giza eta Gizarte Zientzia Fakultateko Dekanotzak eta Psikologia eta Pedagogia Sailak, Herrikoak eta Sortzen-Ikasbatuaz guraso elkarteek eta ELA, LAB, UGT, CCOO eta EILAS sindikatuek.

Orobat, Europako Batzordeko Haurtzarora atenditzeko sareak ezartzen dituen irizpideak jarrai ditzala eskatzen diote Gobernuari; hots, gela bakoitzean izan beharreko ratioa, profesionalen prestakuntza, langileen lan baldintzak eta abar.

Administrazioak ez lieke inolaz ere gurasoei onartuko ikasleei 10 urterekin irakurtzen ez erakusteko eskaera, ezta? Horixe bera egin behar du euskararekin.

Martxelo Otamendi



Nafarroan hezkuntza hobetzeko proposamenen inguruan iritzi desberdinak daude

Nafarroako gobernuak lege proiektu bat onartu du hezkuntzaren kalitatea hobetzeko asmotan. Proiektu horretan 6 milioi euroko diru sailak aurreikusi dituzte, eta Parlamentuan onartzen bada aurrera joko du.

Hitzarmen horretan honako neurriak hartzea aurreikusten da: unibertsitatekanpoko irakaskuntzako irakasle taldeak berritzea; hitzartutako ikastetxetako langileen baldintzak publikokoekin berdintzea eta moduluak eguneratzea; eta ingelesaren ezarpen goiztiarra ziurtatzea. Neurri horietako bakoitza finantzatzeko diru sail berezia egonen da, bakoitza 6 milioi eurokoa.

Bestalde, 2001eko maiatzean Go-

bernuak beste akordio bat sinatu zuen CCOO, UGT, CESIF eta AFAP-NArekin, eta itun haren arabera irakaskuntza publikoko zein pribatuko irakasleek euskarara birziklatzeko eredia aldatu egin zen. Hala, D eta B ereduaren ezarpenagatik beren lanpostua arriskuan duten irakasleak bakarrik birzikla daitezke. Horrez gain, birziklatzeko irakasleak funtzionarioa izan behar du eta 6. urratseko euskara maila izan. Are gehiago, zonalde ez euskaldunetan lana egiten duten irakasleei euskarara birziklatzeko aukera kentzen zaie.

ELA sindikatuak berriki sistema hau aldatzeko eskatu du. Euskaraz birziklatzeko aukera eskaera egiten duen orori zabaltzea eskatzen du, eta urtean gutxienez 50 plaza eskaintzea. Era berean, irakaskuntza publikoan nahiz pribatuan lana egiten duten irakasle guztientzako izan beharko lukeela aldarrikatzen du.

Azken 16 urteotan euskaraz irakasteko 700 irakasle prestatu ditu Irakasleen birziklai zentroak.

Euskarak ez ezik, ingelesak ere kezka sortu du Nafarroan. Gobernuak ingeles goiztiarraren ezarpena orokortu nahi du, eta sindikatuak nahiz guraso elkarteak kezkatuak daude ez dagoelako baliabide nahikorik aipatzen diren neurriak aurrera eramanez ahal izateko.

Irakaskuntza pribatuko langileak greba eta mobilizazio hilabetea izan dute maiatzeko. Sindikatuen eta patronalaren arteko negoziazio mahaiak behin baino gehiagotan hautsi izan dira eta Lan Hitzarmena adostu gabe gelditu da.

Sindikatuak patronalaren "jarrera itxia" salatzearekin batera, hainbat mobilizazio egin dituzte. Hilaren 17an, berriz, greba egin zuten ELA, EILAS, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta. Antolatzaileen esanetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeen %80an izan zuen eragina eta ikastetxeen %30ean erabateko geldialdia egin zen. Huelgaren helburua "patronala estutzea" zen.

Sindikatuak eskaerak lau dira: Haur Hezkuntzako 0-3 zikloa hitzarmenean sartzea, Heziketa Bereziko laguntzaileen baldintzak hobetzea, soldatak igotzea eta langileak euskara ikasteko erraztasunak izatea. Lan Hitzarmenak 12.000 langileri eragiten die.

Bestalde, Nafarroan Kalitate Legearen aurka mobilizatuko dira ekainaren 14an. ELA, LAB, EILAS, Sortzen-Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak manifestaziorako deialdia egin dute eta horretarako arrazoi ugari daudela iragarri dute: 0-3 urteko zikloaren izaera asistentziala; ibilbide baztertzailak; curriculum "bat eta bakarra"; klaustroaren zein eskola kontseiluaren eskumen galera eta abar.

Erakunde sinatzaileak PPko gobernuak bultzatu nahi duen eredu sozial "atzerakoi eta ez-solidarioa"ren aurka daude, eta kalitateak, berez "elite, sailkapen eta banaketa sozialaren esanahia" hartzen duela uste dute.

Horren aurrean, hezkuntza eredu propio baten beharra nabarmendu dute, eta "Guk, gure Hezkuntza" lelopean egingo da manifestazioa.

# Ingelesaren ezarpen goiztiarra eztabaidagai







# Euskara eta ingelesa balantzan jarri dira Nafarroan

Ingelesaren ezarpen goiztiarrak EAEan ez bezalako kezka sortu du Nafarroan. Hori dela eta, martxoaren 9an Ingelesa Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzan ezartzearen gaineko jardunaldia egin zen Iruñean. EILAS, ELA, LAB, Sortzen-Ikasbatuaz eta Ikasle Abertzaleak izan ziren antolatzaileak. Hango hitzaldi, eztabaida eta adituen ekarpenen ondoren, hainbat ondorio eta proposamen atera dituzte eta horiek bildu ditugu hila-bete honetako gaien.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak iazko uztailaren 13an *Nafarroako Foru Erkidegoaren hezkuntza zerbitzua hobetzeko ituna* argitaratu zuen, eta bertan zehazten da *Haur eta Lehen Hezkuntzako ingelesaren erreformazua* programa. Horren harira, orain agindu foral bat ateratzear dago eta bertan zehaztuko da aipatu programa. Eta eskola publikoetako Haur Hezkuntzako 2. zikloari eta Lehen Hezkuntzari eragingo dien.

Aginduak dioenaren arabera, ikasgaien saioak 50 minutukoak izanen dira. Haur Hezkuntzako 2. zikloan Ingeleseko 4 saio egingo dira G eta G eta A ereduko ikastetxeetan, eta 2 eta 4 saio artean D eta D eta A ereduko zentroetan. Dena dela, D ereduko eskoletan 3 urterekin hasteko partez 4 urterekin hasteko aukera uzten du. Lehen Hezkuntzari dagokionez, maila guztietan 5 saio eskainiko zaizkio ingelesari.

Edozein modutan, azpimarratzekoa da aginduan ez dela "Ingelesa" aipatzen ikasgai bezala, baizik eta "Curriculumeko gaien edukien indartzea ingelesez". Horrek esan nahi du ingelesa "behikularra" izango dela, hots, beste ikasgai horiek ingelesez irakasteko erabiliko dela, eta ez ingelesa bera hizkuntza bezala ikasteko.

Hasteko, esperientzia moduan zenbait eskolatan soilik ezarri da, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloan. Aurreikusitako egutegiaren arabera, 2002/2003 ikasturtean Haur Hezkuntzako 2. ziklora zabalduko da eta 2003/2004 ikasturtetik aurrera urtero kurso batean ezarriko da.

Dena dela, kontuan hartu behar da

Nafarroako hizkuntza egoera elebiduna, eta beraz, ikastetxe guztien egoera ez dela berdina. Egoera elebidun horren arabera hizkuntza proiektuak garatu behar dira, hizkuntza bakoitzari dagokion funtzioa eta tokiak emanez eta bermatuz. Haatik, hainbat erakundetako kidek ez dute berme hori ikusten *Haur eta Lehen Hezkuntzako ingelesaren erreformazua* programan.

Beren kezka eta ardurak bultzata burutu zen martxoaren 9an Iruñean *Ingelesa Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzan ezartzearen gaineko jardunaldia*. EILAS, ELA, LAB, Sortzen-Ikasbatuaz eta Ikasle Abertzaleak izan ziren antolatzaileak, eta hainbat irakasle, guraso eta ikaslek hartu zuten parte.

## Ikuspegi orokorra

Jardunaldien ikuspegi orokorra hiru puntutan bil daiteke.

- Hizkuntza komunikatzeko tresna da, eta erabileraren poderioz ikasten eta irakasten da adin bakoitzeko behar komunikatiboen arabera. Beraz, hizkuntza zerbaitetarako erabiliz ikasten da.

- Argi denez, ez dute hizkuntza guztiek murgiltze prozesu baten objektu izan behar, eta bakoitzaren trataera zehatza hainbat baldintzaren arabera egonen da, hala nola gizartearen egoera linguistikoaren arabera, hizkuntzaren beraren funtzioaren arabera eta abar.

- Horregatik uste dugu Nafarroako egoera linguistiko elebidunaren arabera hizkuntza proiektuak garatu behar direla, non hizkuntza guztiek beren funtzioa eta toki egokia izanen duten, beren finantzabide eta guzti.

# G

## Ekarpenak

Eleaniztasuna eta ingelesaren irakuntzari dagokionez, hainbat ekarpen jaso dira; alde batetik hizkuntzen murgiltzeari buruz, eta bestetik hizkuntza baten ezartze goiztiarrari buruz.

### Hizkuntzen murgiltzea

- Bigarren hizkuntzan murgiltzeak lehenengo hizkuntzaren edo ama hizkuntzaren garapena dakar aldi berean, biak elkarren osagarri baitira. Lortzen den kodeen erabileraren malgutasun hori hirugarren hizkuntza (H3) edo laugarrena (H4) barneratzeko prozesuan oso lagungarri suertatzen da.

- Baina ezinbestekoa da hizkuntzaren ikastea zein hizkuntzatan burutuko den zehaztea.

- Murgiltze eredu bikoitza edo hirueletasuna gezur galanta da eta kasu bakar batzuetan eta oso baldintza berezietan soilik garatzen da:

- Tutoretza bikoitza

- Pertsona bat eredu linguistiko bat.

### Hizkuntza baten ezarpen goiztiarra

- Hizkuntza baten ezarpen goiztiarra ez da erabakigarria eta ez da bigarren hizkuntzaren murgiltze ereduaren oztopo ere. Bere abantaila nagusiak motibazioari (H3rekiko sortzen dituen ohitura eta jarrera positiboak) eta fonologiari dagozkio. Fonologiari dagokionez oso baldintzatuta dago, eredu linguistiko (fonologiko) egokiari lotuta baitago (irakasle *natiboak*).

- Esan daiteke benetan mugatua dela *goiztiarraren* eragina. Gainera, astean hiru orduz lortzen diren hizkuntza trebetasunak oso mugatuak dira (A eredu).

- Beraz, badirudi batzuen marketinaren beharrak eskolaren etorkizuna berma dezakeela zentzurik okerreanean.

## Ondorioak

Jardunaldiak bukatu ostean hainbat ondorio atera dira eta hauexek dira:

- Hirugarren hizkuntzarekin lortu nahi den helburuak zehaztuta egon behar du eta koherenteki garatu behar da Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzaraino (Hizkuntza Proiektua).

- Hirugarren hizkuntzak etapa bakoitzaren barnean sartuta egon behar du. Hirugarren hizkuntzako irakasle espezialistak ezin du eskola eman 3-12 urte arteko maila guztietan; etapa bakoitzean integratuta egon behar du behintzat.

- H3ko irakasleak euskaraz jakin behar du (EGA) eredu linguistiko elebidunetan.

- Noiz sartzeak baino garrantzi handiagoa du nola irakatsi behar den jakiteak, zertarako zehazteaz gain, noski.

- H3ko irakasleen prestakuntzak berebiziko garrantzia du proiektuaren arrakasta lortzeko.

- Esan dezakegu Nafarroan ingelesaren ezarpen goiztiarra (behikularra

paktuan) ezaugarri batez definitzen dela: amildegia.

- Azkarregia da ez duelako behar adinako adostasunik Nafarroako hezkuntza sisteman egiturazko aldaketa egiteko (praktikan gertatzen dena). Hitzarmen sindikal mugatu batean oinarritzen da Nafarroako Parlamentuari bizkar emanez.

- Oso garrantzitsua da ikustea administrazioak eta sindikatu batzuek nola bereganatu nahi duten hezkuntzaren ordezkaritza osoa, ikastetxeak eta beste hezkuntza sektore batzuk ahaztuz; besteak beste, Nafarroako Eskola Kontseilua, gurasoak eta ikasleak.

- Ezin dugu ahaztu gizarteari egin zaion mespretxua Parlamentua sailhestuz.

- Amildegi horren lekuko dugu proiektu honen oinarri teoriko falta eta helburuen zehaztapen eza, subjektibotasunean ezin baita inolako ebaluaziorik bermatu.

- Amildegi izugarria dakar irakasleen prestakuntzari dagokionez, ez baitago ingeles prestakuntza egokia duen irakasle nahiko, ezta ikastetxe elebidunetan ingelesa eta euskara egoki menperatzen duen behar adina irakasle ere.

- Antzekoa esan daiteke baliabide materialen urritasunaz ere, hausnarke-tetan azaltzen den moduan.

- Horrek guztiak Hezkuntza Departamentua etxea proiekturik gabe teilatutik egiten hasi dela pentsarazten digu, edota hezkuntza mundua nahasmenean sartu nahi duela. Nahasmena dakar gurasoentzat hizkuntza eredu aukeratzeko garaian. Eta gurasoek, gizartearen lekuko, gaztelania, euskara eta ingelesa nahi dute beren seme-alabentzat, hizkuntza bakoitza bere eginkizunean.

- Horregatik, atzerriko hizkuntzen ezarpen orokorrerako bi gauza eskatzen ditugu: adostasun esparru zabala batetik, eta beharrezkoak diren baldintzak bestetik. Nafarroan ez dira ez bata eta ez bestea bermatzen, eta horren aurrean egoera zuzen dezan eskatzen diogu.



# GAI A

## Ingelesaren ezarpen goiztiarra eztabaidagai

# G

## ADITUEN EKARPENAK

Jardunaldian hainbat adituk parte hartu zuen ingelesaren ezarpen goiztiarrari buruzko iritzia emanez. Besteak beste, han izan ziren: Felix Etxeberria, Jasone Cenoz, Xabier Etxague, Uri Ruiz Bikandi eta Ines Miret EHUko irakasleak, Manolu Fontalba eta Mari Jose Eguskiza Ingeles irakasleak, Eduardo Aldasoro eta Esther Mugertza Nafarroako Gobernu Euskara Zerbitzuko teknikariak, Rosa Aliaga Donostiako Berritzeguneko aholkularia, Joxean Odriozola EHEko kidea, Iztia Elorza Ikastolen Elkarteko Hizkuntza arloko arduraduna, Mikel Zalbide, Iñaki Artola eta Santos Izagirre Eusko Jauritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuko teknikariak eta Ramon Garmendia Irungo Berritzeguneko aholkularia.

### Hezkuntza hirueledun goiztiarra Euskal Herrian eta Cummisen bizikleta

Felix Etxeberria  
EHUko irakaslea

#### Sarrera

Euskal hezkuntza sistema elebiduna da, hizkuntza indartsu bat (gaztelania) eta gutxitu bat (euskara) dituelarik. Euskararen irakaskuntza hiru ereduren arabera egiten da, euskararen erabileraren intentsitate mailaren arabera desberdintzen direlarik.

Orain dela 6 urte edo hasi zen esperimintatzen ingelesaren ezarpena 4 urteko haurrekin, eta azkenaldian ezarpen goiztiar hori eskola guztietara hedatzen ari da.

Ingelesa ezagutzearen garrantzia onartua dago gure inguruan, eta ingelesa eskola irakasteko adostasun eta interesa handia dago. Hori esanda, geldialdi bat egin behar da irakaskuntza hori aztertzeko, eta gure ingurunean heziketa hirueledun (euskara, gaztelania, ingelesa) goiztiarraren (4 urterekin) egokitasuna sakon aztertu behar da.

#### Euskal hezkuntza hirueledunaren inguruko zalantza nagusiak

Zalantza handiak daude ingelesa 4 urterekin sartzeak desbantaile baino abantaila gehiago ote dituen. Euskararen garapenarekin zer gerta daitekeen galdetzen diogu geure buruari eta zer-nolako aurrerapen erreal ekarriko duen ingelesaren ikasketak ikasleentzat. Planteamendu honen zulo nagusiak honela laburtzen ditugu:

1.- Esperientzia honen euskarri teoriko-zientifikoa ahula da, programa hau egiteko oinarri izan diren testuak esperientzia elebidunetan oinarrituta baitaude, eta ez hirueledunetan. Egia da bigarren hizkuntza baten ikasketa normalean ez dela arazo izaten, baina ez dago oso argi hirugarren hizkuntzaren ikasketa hain erraza izango ote den, eta are gutxiago testuinguru elebidun diglosikoan. Bi sartzan diren lekuan hiru sartzan al dira?

2.- Beste herrialdeetan hirueledunaren gainean egindako ikerketa askok 8-10 urte bitarteko hirugarren hizkuntzaren, ingelesaren, irakaskuntzaz hitz egiten digute. Egoera hori oso bestelakoa da 4 urterekin hasitako ikasketarekin alderatuta. Orain arte Euskal Herrian egindako ikerketak

gutxi dira, eta gehien onorioak ez dira behin-betikoak eta eztaba daezinak.

3.- Ingelesa hirugarren hizkuntza bezala 4 urterekin ikaste-irakastearen oinarri psikopedagogikoa ez dago batere garbi, eta are gutxiago gurea bezalako egoera diglosikoan. Bigarren hizkuntza (euskara) finkatuta egon gabe hirugarren hizkuntzaren (ingelesaren) ikasketarekin hastea ona dela dioen ebidentziarik ez dago, eta hori guztia irakurketa-idazketa prozesua hasi aurretik.

4.- Ezin da emaitza onik espero 4 urteko ingelesaren irakaskuntzatik egunero 30 minutu eskainita. Adin berean euskarari 60 minutu eskainita ez badute ikasten, nola ikasiko dute ingelesa eguneko ordu erdiarekin?

5.- Ez dira kontuan hartu hirugarren hizkuntzaren ikasketaren esperientzia positiboak programa 6-8 urterekin hasten denean eta intentsitate eta prestatuntza maila berarekin. 6-8 urterekin justifikatuta egon daitekeena, ez da hain ebidentea 4 urterekin.

6.- Esperientzia hau Euskal Herriko ikastetxe guztietara hedatzeak materiala, programak eta irakasleak prestatzea eskatzen du, eta hori ez da burutu behar besteko zorrotzasunez.

## Ingelesaren ikasketa Haur Hezkuntzatik hasita: eragin kognitiboak, linguistikoak eta afektiboak

Jasone Cenoz  
EHUko irakaslea

### Testuinguru europarra

Ingelesa Europar Batasuneko hiritarrentzat komunikazio hizkuntza nagusi bilakatu da, nahiz eta oraindik diferentzia handiak egon ingelesaren ezagutzan eta erabileran Europa iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen artean. Interesgarria da konturatzeko kontinente-ko ikuspegitik ingelesa ez dela atzerriko hizkuntzat hartzen eta ezta jatorrizko hiztunen jabetza moduan ere. Aitzitik, europarren arteko komunikazio hizkuntza garrantzitsuena den bigarren hizkuntzat hartzen da.

Testuinguru europarrean elebidunak edo eleanitzak diren komunitate ugari daude eta ingelesa hirugarren hizkuntza da askotan (Cenoz eta Jessner, 2000a). Adibidez, frisiarra, bretoiara, sardiniarra edo euskara hitz egiten dutenek hizkuntza nagusiak ikasteaz gain ingelesa ikasten dute. Bestalde, oso ohikoa da Europa barruko hizkuntza bat eta internazionala den beste hizkuntza bat gehiago ikastea.

Ingelesaren irakaskuntza goiztiarra gero eta ohikoagoa da eskolan (Fixon, 1992; Kubanek-Gerinan, 1998; Dn'scoll & Trost, 1999). Haatik, ez da oso normala Haur Hezkuntzatik hasita, Europako gainontzeko herrialdeetan ere Lehen Hezkuntzan hasten dira. Era berean, ingelesaren jabetza eskolako testuinguruan egiten denean haren sarrera goiztiarraren eraginak positiboak direla esaten duen ebidentzia zientifiko nahikorik ez dago.

Gure testuinguruari begira jarrita, ingelesaren sarrera goiztiarra Erreformatik ekarri zuen, eta 1993az geroztik atzerriko hizkuntzen irakaskuntza derrigortu egin zen Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera. Zenbait komunitatetan ezarpen hori Haur Hezkuntzara aurreratzen zen (4 urtetik aurrera) Erreforma orokortu baino lehen. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako zenbait eskoletan Ikastolen Elkarteak 1991-92an hasi zen ingelesa Haur Hezkuntzatik sartzen. Iniziatiba

hori oso ezaguna izan da eta gaur egun EAEko ikastetxe gehienetan 4 urtetik aurrera irakasten da ingelesa atzerriko hizkuntza bezala. Beste komunitateetan ere joera bera nabari da.

Atzerriko hizkuntzen ezarpen goiztiarra ezartzeko kontuan hartu behar da hezkuntza testuingurua. EAEko ikasle guztientzat eta Nafarroako askorentzat ingelesa hezkuntza sistema elebidunaren barruan hirugarren hizkuntza da.

Antzeko egoeran aurkitzen dira anglofonoak ez diren komunitate elebidunetako ikasleak: Katalunia, Valentzia, Galizia, Frisia, Britainia eta abar. Etorkinen komunitateetan ere ingelesa hirugarren hizkuntza da; beren jatorrizko herrialdeko hizkuntza eta herrialde etorkinekoa erabiltzen dituzte eta ingelesa eskolan ikasten dute.

Ingelesaz hirugarren hizkuntza bezala jabetzeak antzekotasun ugari ditu bigarren hizkuntza bezala jabetzearekin, baina baita desberdintasunak ere. Hirugarren hizkuntzen jabetzea, bigarren hizkuntzen jabetzea bezalaxe, aldagai indibidual eta sozial askorekin erlazionatuta dago. Baina gainera, bigarren hizkuntzaren jabetze prozesuak eta ondorioek (bigarren hizkuntzako kompetentzia) eragina izan dezakete hirugarren hizkuntzaren jabetzean (Cenoz & Genesse, 1998a; Hufeisen & Lindemam, 1998; Cenoz & Jesser, 2000a; Cenoz, Hufeisen & Jesser, 2000b, 2001a eta b; Herdina & Jessner, 2002).

## Ez da oso normala Haur Hezkuntzatik hasita, Europako gainontzeko herrialdeetan ere Lehen Hezkuntzan hasten dira.

Hirugarren hizkuntzaren jabetzaren Haur Hezkuntzatik aztertu duten ikerketa oso gutxi daude, eta hala ere, galdera garrantzitsu ugari planteatzen dira kontuan hartzen badugu beharrezkoa dela aintzat hartzea:

a) Haur Hezkuntzatik ingelesa programa elebidunen barruan erakusten hasteak eraginik ba ote duen garapen kognitibo eta linguistikoan;

b) ea ingelesean eta jarreraren espero ziren emaitzak lortzen ari diren planteatutako helburuen eta erabilitako giza eta ekonomia baliabideen arabera.

### Atzerriko hizkuntzaren sarrera goiztiarra eta indartua

Edorta Aldasoro eta Esther Mugertza  
Nafarroako Gobernuako Euskara Zerbitzuko teknikariak

Informatikaren globalizazioak eta orokortzeak, gobernuen nolabaiteko politika ekonomiko arrazionalizazioak eta lehengo mundurako migrazio mugimendua aldaketa orokorrak sortzen ari dira. Eta hori hizkuntzetan ere islatzen da. Urtero hogeiki hizkuntza baino gehiago desagertzen dira.

Orokorrean paradoxa bat antzematen da: gero eta jende gehiagok handitzen ditu bere gaitasun eleanitzak eta horrek erabiltzen diren hizkuntzen gutxitzea dakar.

Horren guztiaren ondorioz, nazioarteko komunitatean ingelesa *lingua franca* bihurtzen ari da.

Gertaera horren guztiaren aurrean zenbait administrazio ingelesaren ezarpena jotzen du gero eta handiagoa den eskaera sozialari erantzuteko. Horrela, iadanik hezkuntza sektore batzuetan hasitako progoganda gerran sartzen dira. Progoganda horretan elebitasuna, eleaniztasuna, murgiltzea, jatorrizko menpetzea, transmisio ikasketa... kontzeptuak nahasten dira. Eta eredu edo programa horiek ingelesa astean hiru edo lau ordu ematera mugatzen dira, nahiz eta 3 urterekin hasi. Fenomeno horrek lehen kezka sortzen du. Programen hizkuntz helburuaren gaineko planteamendu pedagogikorik ez dago: nolako ingeles maila lortu nahi da? Zein gaitasun motara bideratuko da: oinarriko hizkuntza, hizkuntza aurreratua, akademikoa, oinarriko komunikazioa, komunikazio aurreratua, jatorrizkoa...? Zein erabilera esparru bultzatuko dira: informati-



koak, teknikoak, komertzialak, sozialak...? Zein erregistro mota?

Ingelesa den bezala definitu behar da: nazioarteko komunikaziorako atzerriko hizkuntza. Beraz, bere ikasketaren helburua ez da gai guztietako ezagutza kognitibo-akademikoa (ez murgiltzen goiztiar osoa), baizik eta pertsonen arteko oinarriko komunikazio gaitasuna duen erabilera instrumentala, eta agian aurrerago (DBHn eta Batxilergoan) arlo zehatz bateko ezagutza eta erabilera: informatika, nazioarteko merkataritza... Horretarako, nahikoa da ikasgai bezala ikastea, zehar lerroko edukiekin. Edo agian DBHn gai jakin batean transmisio funtzioarekin erabil daiteke.

Ingelesaren ezarpenean ikaskuntzan eragiten duten zenbait aldagai soilik hartzen dira kontuan, beste batzuk ahaztu egiten diren bitartean. Egin diren ikerketen arabera, haur bat zenbat eta denbora gehiago egon hizkuntza batekin orduan eta hobeto menperatzen du. Zalantzarik gabe, ahaztu egiten da denbora horrek esanguratsua eta motibagarria izan behar duela. Horrenbestez, berriki egindako zenbait ikerketa eta esperientziek askoz eraginkorragoa deritzote gelan ingeleseko bi irakasle egotea gela bikoiztea baino. Ikasleak arreta pertsonalizatua jasotzen du, ingelesari eskaintako denbora ez da bikoizten eta gainera, irakasle biren erregistro desberdina jasotzen dute. Horrez gain, bi irakasle arteko harremana ingelesezkoa izateak eredu naturala erakusten du eta elkarrizketaren eta hizkuntzaren erabilerean erreferentzia bihurtzen da.

Azpimarratzen den beste aldagai bat zera da: hurrek, zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta hobeto ikasten dutela bigarren edo hirugarren hizkuntza. Hori eztabaidagarria da. Hurrek ez dute gaitasun handiagoa, baizik eta txikiagoa denean beraien beharretara egokitutako komuni-

kazio eredu aproposagoa ematen diegu, eta hori da gakoa. Hau da, txikiagoak direnean gehiago saiatzen gara hizkuntza beren erabilera mailara egokitzen eta irakaslearekiko harremana ere afektiboagoa da.

Kalitateaz, ostera, ez da ezertxo ere esaten; hizketarekin egiten ari denaz ez da ezer esaten, eta hori bai dela aldagai benetan garrantzitsua.

Programa bat posibilitateen, bitartekoen eta irakasleen arabera hasi beharko litzateke. 3 urterekin programa hasi eta sei edo zazpi urtetan lau gauzatxo egitea (joko berdina, ipuin berdina, marraztu, moztu eta itsatsi...) ez da batere egokia. Hobe izango litzateke 8 urterekin hasia eta 12 urtera arte programa trinkoagoa eta koherenteagoa egitea Europako beste zenbait herrialdeetan (Danimarka, Holanda...) egiten den bezala. Herrialde horietan ingelesaren menperatzea onargarria baino gehiago da. 8 urterekin hasitako ingelesaren irakaskuntzak berehala ematen du aukera edukiak lantzen hasteko; hau da, matematikak, gizarte zientziak, proiektuak... eta ikasleari eduki curricular erakargarrien ezagutza ematen dioten aktibitate ez ebaluagarriak.

Zentzu horretan, 3, 4 eta 5 urteko hurrek material bera erabiltzen dutela jakitea ez da oso itxaropentsua. 4 urteko hurrek aurreko ikasturtean erabilitako material bera erabiliko al dute? Eta 3 urtekoek hiru ikasturtetan jarraian material, unitate didaktiko, marrazki... berak erabiliko al dituzte?

Bestea aldagai garrantzitsua irakasleria da. Hizkuntza eta didaktika gaitasun nahikoa duten irakasleak al daude? Zein titulazio eskatzen da ingelesa irakatsi ahal izateko?

Atzerriko hizkuntzaren kasuan irakaslea funtsezko aldagaia da. Funtsean, irakaslea izanen da erreferente bakarra, input linguistikoa bakarra. Horregatik, bere gaitasuna ez bada ona nekez transmitituko

du hizkuntza. Gainera, zaila eta konplexua izango da aktibitate osagarriak eta eskolaz kanpoko laguntza emango duten beste input batzuk lortzea.

Ba al dago merkatuan irakasle nahikorik ikastetxe guztietan areagotze programak ezartzeko? Ba al dago euskarako eskolak emateko euskara gaitasuna (EGA) duen irakasle nahikorik?

Horregatik, administrazioak ingeles goiztiarreko ikastetxe elebidunak edo hirueledunak irekiko dituela esaten duenean kontziente al da zentro elitistetatik hitz egiten ari dela? Zeren, nekez irekiko dira horrelako ikastetxeak bospasei zentro esperimentaletan izan ezik. Musikako ikastetxe esperimentalen eskarmentua badaukagu; garapena oso mugatua izan da eta emaitzak oraindik ebaluatzeke daude.

Ikasmateriala ere oso garrantzitsua da, hots, proiektuen eta unitate didaktikoen elaborazioa. Material ona edukitzeko denbora behar da eta horretarako, egokiagoa da sistema berri bat urte urte ezartzen joatea eta unitateak egiteko, programatzeko eta koordinatzeko nahiko pertsona edukitzea.

Eskolako antolaketa orokorraren faktoreak ere aintzat hartu beharko lirateke. Ingelesa eskolako planaren eta curriculumaren barruan sartu behar da eta hizkuntzen arteko koordinazioa eratu behar da. Hau da, ikasleak euskaraz eta gaztelaniaz dituen ezagutzak ingelesa bultzatzeko aprobetxatu behar dira, eta baita alderantziz ere. Lehenengo eta behin, hizkuntzen inguruko hausnarketa egin behar da, eta ondoren ikastetxe osoan ezarriko den hizkuntza planaren gaineko adostasuna lortu. Plan horren gainean egingo dute lana irakasleek beren programa kurrikularretan eta zikloetan.

Taldeko tutoreak ikasle bat gehiago balitz bezala parte hartu behar du ekintzetan. Horrela, aktibitatea baloratu ahal izango du eta zentzua emango dio.

Azken finean, ingelesa areagotzeko programa martxan jartzeak baldintza batzuk eskatzen ditu, eta argi dago Nafarroan ez direla aurreikusitako, presaka ezarri baita.

G A I A  
Ingelesaren ezarpen  
goiztiarra eztabaidagai

G

# Orlando Martinez Oscar Romero

Kubako Granmako Unibertsitateko  
irakasleak



Hezkuntza funtsezko zutabea  
izan da Kubarentzat. Eta horrek  
ekarri du beste guztia. Zeren  
Kubaren lorpenak, hein handi  
batean, hezkuntzari zor  
baitzaizkio



Orlando **Martinez**  
Oscar **Romero**

E

Kuban ez da erabakirik hartzen sindikatuekin kontatu gabe. Derrigorrezkoa da zuzendaritza batzorde guztietan sindikatuak ordezkatuta egotea.

Kubako Granmako Unibertsitateko Orlando Martinez eta Oscar Romero irakasleak Euskal Herrian egon berri dira. Irakasle izateaz gain, lehenengo unibertsitateko sindikatuko bulegoko idazkari nagusia da eta bigarrena, berriz, Medikuntza eta Albaitaritza Fakultateko dekanoa. Biak unibertsitateko zuzendaritza batzordeko kide dira.

LAB sindikatuak gonbidatuta etorri dira Euskal Herrira eta, herendik eraman duten informazioarekin eta dokumentuekin, Euskal Herriari eskainitako txoko bat osatuko dute Granmako Unibertsitatean.


Kuban hezkuntzak eta osasunak izan duten garrantzia eta pisua baieztatu dizkigute, hango hezkuntza sistemaren berezitasunak azaltzearekin batera.

**SNTECD sindikatuko ordezkari lanak betetzera etorri zarete Euskal Herrira. Nolakoa da sindikatuen antolaketa Kuban?**

**Orlando Martinez.**- Kuban sindikatu orokor bakarra dago, CTC (Central de Trabajadores de Cuba), eta sindikatu guztiak bere baitan biltzen dira. Sektore bakoitzak bere sindikatua du eta denak CTCn integratuta daude. Horrela, SNTCED (Sindicato Nacional de Trabajadores de la Educación, la Ciencia y los Deportes) hezkuntzako sindikatua da. Orientazio orokorrak CTCtik datoz, baina autonomia da, beste sektoretakoak bezalaxe.

**Zein da sindikatuen funtzioa Kuban?**

**Oscar Romero.**- Sindikatuen funtsezko funtzioa langileen lanaren kalitatean laguntzea da, kalitatezko hezkuntza bermatzea eta graduatuen prestakuntza integrala ziurtatzea. Sindikatuaren egitekoa langileen lana adieraztea eta defendatzea da. Kuban ez da erabakirik hartzen sindikatuak kontuan hartu gabe. Derrigorrezkoa da zuzendaritza batzorde guztietan sindikatuak ordezkatuta egotea. Era-kunde administratibo bat dagoen lekuan, sindikatua dago.







**Martinez.** - Bai, hala da. Lehenengo zeregina langileen interesak defendatzea da. Sindikatua horretarako sortua da. Modu batera edo bestera hori da egitekoa.

Baliteke administrazioarekin kontraesanak izatea, baina ez dira antagonikoak. Kontzeptuei buruzko kontraesanak dira, ez printzipioei buruzkoak; eta behin argituz gero, ez dago arazorik. Izan ere, modu batera edo bestera, denok helburu bakar bat lortzeko egiten dugu borroka. Donostiara iristeko bide bat baino gehiago dago, baina denak Donostiara iristen dira.

### **Zein dira denok defendatzen dituzuen helburuak?**

**Romero.** - Gizakia bere buruaren jabe izango den gizarte bat eraikitzea, hots, gizarte hobea lortzea, administrazioak hobeto funtzionatzea eta estatuaren interesak defendatzea, batez ere langileen interesak. Horrekin batera, adierazpen eta prestakuntza osatuena lortzea, oinarri ekonomiko sendo batean finkatuta. Hori da funtsezkoena, gizaki berria prestatzea. Eta modu batera edo bestera, denok hori lortzeko borrokatzen gara.

### **Nork osatzen duzue hezkuntzako sindikatua?**

**Martinez.** - Irakasleok eta irakasle ez diren zerbitzuetako langileak. Horiek ere hezitzaileak dira. Denok gara hezitzaileak; sukaldean lan egiten dutenak, garbitzaileak, irakasleak... eta beraz, denok sindikatu etako sailetan antolatuta gaude.

**Romero.** - Langile guztiok berdinak gara: unibertsitateko errektoreak, garbitzaileak, ikasleak... Eskola bat margotu behar bada, denok egiten dugu lan hori. Adibidez, ikastetxe guztietan dago jantokia hornitzeko baratzea eta denek egiten dute lana han. Langileon soldata desberdina da, baina gainontzean eskubide eta bete-behar berdinak ditugu.

### **Beti esan izan da Kubako oinarriak hezkuntza eta osasuna izan direla. Hala al da?**

**Romero.** - Hezkuntza funtsezko

zutabea izan da Kubarentzat. Eta horrek ekarri du beste guztia. Zeren Kubaren lorpenak, hein handi batean, hezkuntzari zor baitzaizkio.

Edonola ere, hezkuntzari eman zaion garrantzia ez zen 1959ko iraultzaren ondoren hasi, lehenago baizik. Egun Kuban dagoen hezkuntza sistema, neurri handi batean, mendian eta herrietan borrokatzen ari ziren bitartean hasi zen garatzen, iraultzaren eginbeharrak borroka armatua bera gainditzen baitzuen. Horregatik, lehenbiziko urtetatik zapalkuntza neokolonialak eragindako ondorioen aurka hasi ginen: mediku eta maisu-maistren gabeziari eta gaixotasunei eta analfabetismoari aurre egiten.

Ejertzito errebeldea gero eta lur eremu gehiago eskuratzen joan zen heinean, medikuen eta irakasleen parte-hartzea handitu egin zen, asko lehen lerroko burkideztat hartuak izan zirelarik.

### **Zein ideia zegoen hezkuntzari horrelako garrantzia ematearen azpian?**

**Martinez.** - Hezkuntzaren gauzatean marxismoaren eragina argia izan bazen ere, ez zen gutxiagokoa izan kubatar handiena, besteak beste, Jose Martírena. Hark esanak dira XIX. mendean: "*ser culto es el único modo de ser libre*", "*un pueblo instruido será siempre fuerte y libre*" eta "*un pueblo de hombres educados será siempre un pueblo de hombres libres*". Eta ideia horiek beti egon dira presente Kuban. Beste hau ere Fidelek esana da: "*con un libro y con un lapiz también se puede hacer mucho en esta hora*". Ikastea beharrezkoa da iraultzaren nondik norakoak ulertu ahal izateko.

Horregatik, liberatzen zituzten zonaldeetan hezkuntza egoera aldatzen zen. Alfabetatzea ahalik eta gehien zabaldu zen, soldadu, heldu, herritar eta hauren oinarriko eta lehendabiziko premia hezkuntza baitzen.

Denok  
gara  
hezitzaileak;  
sukaldean lan  
egiten dutenak,  
garbitzaileak,  
irakasleak

Orlando **Martinez**

Oscar **Romero**

E

1958ko  
azaroaren 12an  
agindu militar  
batek Lehen  
Hezkuntza  
derrigorrezkoa  
ezarri zuen, eta  
eskola eta testu  
liburuak  
doakoak  
deklaratu.  
Horrek Kubako  
sozialismoaren  
lorpen  
handienetarikoa  
izango zena  
aurreratu zuen

**Nolako urratsak eman ziren hezkuntzaren garapen hartan?**

**Romero.**- 1958ko abuztuaren eratu zen Hezkuntza Departamentua eta horrekin hezkuntzaren egitura sendotu egin zen: eskoletatik edo alfabetatze taldeetatik hasi, konpainia arduradunekin segi eta Departamentuko zuzendaritzaraino. Hezkuntza Departamentuaren sorrerak eskola zein maisu-maistren kopuruaren igoera ekarri zuen, eta Departamentuak gerrillako buruzagiak informatzeko eta motibatzeko lan espezifikoak burutu zuen.

58ko azaroaren 12an agindu militar batek Lehen Hezkuntza derrigorrezkoa ezarri zuen, eta eskola eta testu liburuak doakoak deklaratu. Horrek Kubako sozialismoaren lorpen handienetarikoa izango zena aurreratu zuen.

Urte bereko iraila eta abenduan Irakasle ikasketen plangintza orokorra eta hezkuntza guztiaren programak egin ziren. Beraz, ez zen ikastetxeak ireki eta eskolak ematea soilik, baizik eta elaborazio lana ere bazegoen. Eta sortzen ziren materialak ez ziren didaktiko-pedagogikoak

soilik, baita maisu-maistren ezagutza politikoa hobetzeko ere.

**Gaur egun Kuban ez dago analfabetismorik, ezta?**

**Martinez.**- Ez, ez dago egin diren alfabetatze kanpainen ondorioz Kuban analfabetismoa desagertu egin zen. Hezkuntzarako eskubidea denei ziurtatzen zaie. Izan ere, bizitzeko janaria behar dugun bezala, hezkuntza ere beharrezkoa dugu.

Kuban denak alfabetatuta egoteaz gain, batez besteko hezkuntza maila batxilergo mailako da.


**Romero.**- Dena dela, hezkuntzaz aparte beste hainbat arlotan ere aipagarria da Kubaren maila. Artean, esaterako, Kubako zinematik mundu mailako oniritzia du. Dantzan Kubako baletak mundu osoa zeharkatu du. Pintura, literatura eta musika ere oso famatuak dira. Blokeo eremutik kanpo, Kubako musika mundu osoan ezagutzen eta entzuten da. Kiroletan ere maila ona lortu dugu, olinpiadetan eta mundu mailan lehenengo hamar onenen artean gaude. Beraz, hezkuntzaz gain, beste hainbat arlotan ere ondo gaude. Noski, hori dena hezkuntzarik eta osasunik gabe ezin da lortu.



# Gehigarria



haur-  
jolasen  
abestiak





**1** 996an hasitako lanari jarraituz, hemen aurkezten dizuegu “Haur-jolasen abestiak III”, haur-jolasen inguruan burutzen ari garen bildumaren hirugarren zatia.

Kasu honetan, haur txikientzako jolasak aukeratu ditugu alde batetik, eta talde jolasak bestetik.

Jolasen abesti dezente asmatu egin ditugu euskarazko bertsiarik ez zutelako eta aproposak iruditu zaizkigulako.

Itsasertzeko herri txiki batean, haurrak, pailazoak eta amona jolasten ari dira. Pirata zahar bat agertuko da eta haurrak eta pailazoak hain jolasti, bihurri eta jatorrak direla ohartzean, beraiekin bizitzen geratzea erabakiko du.

### 1) SARRERA

**Amona:** “Itsasertzeko herri txiki batean, kaiok hegan dabiltzala, itsas olatuen zurrumurrua lagun dutela, haurrak eta pailazoak jolasten ari dira kai ondoko plazan.”  
(*Itsas giroa: olatuen zarata, kaioen kanta...*).

### 2) ITSASOKO OLATUEK

Itsasoko olatuek kulunkatzen gaituzte, txipli-txapla eraginez, jolastu nahi baitute. Alde batera eta bestera, behetik gora, beti aurrera!

Olatuen sokasaltoan aritzeko aproposa da.

(*Baloi botak gerturatzen entzuten dira*)

**Pirritx:** Bota ezazu baloia, orain niri tokatzen zait.

**Porrotx:** Tori, Pirritx!

**Pirritx:** Ui, ui, ui! Burura bota didazu.

**Porrotx:** Ju, ju, ju! A ze punteria txarra!



### 3) BOTE, BOTE, BOTEAN

Bote, bote, botean,  
bote hanka artean,  
gero beste aldean,  
segidan aurrean,  
ondoren atzean,  
hurrena ezkerrean,  
baita ere eskuinean,  
eta azkenik, airean!



Pilota edo baloi bat hartu eta abestiaren erritmoan boteak ematen hasi. Abesten ari diren bitartean kantak dioena egin

**Maialen:** Orain ni.

**Asier:** Ez. Niri tokatzen zait.

**Pirritx:** Utz ezazue baloia eta bakarkako jolasa. Zergatik ez gara denok batera jolastan? Ea, bada, jar gaitezen ilaran aurrekoari gerritik helduz.

**Porrotx:** Sugea osatuko dugu. Anakondaren modura biribilduko gara.

**Beñat:** Gu oso txikiak gara eta beti zapaldu egiten gaituzue.

**Olaia:** "Apatxurratuta" bukatzen dugu.

**Pirritx:** Hara non datorren amona Josefina. A ze pagotxa, berarekin jolastuko zarete!

**Amona:** Zatozte, zatozte nirekin, maiteak.

**Beñat eta Olaia:** Amona, amona! (deika).

### 4) ANAKONDA

Anakonda suge bat da,  
biltzen dena mantso-mantso.  
Harekin bilduz gero,  
bihurtzen gara ero-ero.



Denak ilaran jartzen dira bata bestearen atzean gerritik edo sobaldatik aurrekoari helduta. Lehenengoa biribila egiten hasten da, gero eta biribil txikiagoa osatuz. Bukaera gehiago biribildu ezin dutenean izango da. Bestela, berriro biribila handitzen hasi eta hasierako egoerara itzultzen direnean buka daiteke.

**Amona:** Peru txikitxo, eser zaitez nire magalean.

**Olaia:** Eta ni, non?

**Amona:** Zu ere magalean, Amaia, baina Perurekin bukatutakoan.

### 5) XANGO MANGO

Xango-mango,  
haur hau nongo?  
Ona bada, guretzako.  
Eta gaiztoa bada,  
putzurako, rako, rako, rako!

Helduak haurra izterren gainean jartzen du eta kantaren erritmoan mugitzen du gora eta behera. Putzurako esatean bi besoekin haurra airera jasotzen du eta rako, rako, rakoekin batera haurra mugitzen du erritmo bizian.



**Izaro:** Zein suge luze eta biribildua osatu dugun, e!

**Mikel:** Bai. Zein ongi gabiltzan oporretan.

**Oihana:** Niretzat abuztua da hilabeterik onena.

**Porrotx:** Ba nire gusturako udaberria da ederrena. Loreak hegan, tximeletak igeri, amuarrainak zelaian...

**Pirritx:** Aizu! Dena alderantziz esan duzu eta gainera, udaberria ez da hilabetea, e!

**Porrotx:** Nola ezetz!

**Pirritx:** Hilabeteak ongi ikasi beharko ditugu. Ea, jar zaitetze denak biribilean eta txalotarako prest, bale?

**Denok:** Bai, bai, baleeeee...

### 6) HILABETEENA

Urtarrila lehena, bigarren otsaila,  
hirugarren martxoa, gero apirila.  
Maiatza, jakin ezazu, da bosgarren hila,  
seigarrena ekaina, ondoren uztaila.  
Abuztua, guretzat, hilabete ona.  
Iraila eta urria, gora udazkena!  
Azaroa nola den hamaikagarrena,  
azkena abendua: hamabigarrena.

Korroan jarritz, txalotako jolasa da. Bakoitzaren urtebetetzeko hilabetea tokatzen denean makurtu egiten da, txalotan jarraituz. Bi aldiz egiten bada, lehenengoan makurtu eta bigarrean zutitu.

**Amona:** Ea, nork egingo dit mandatu bat?  
**Maialen:** Baina, amona, oporretan gaude eta!  
**Amona:** Aizue! Oporretan bazaude ere, etxeko lanak denon artean egin beharko ditugu, ezta?  
**Pirritx:** Arrazoi duzu amona, baina nor joango da mandatua egitera?  
**Amona:** Orain aukeratuko dugu. Etor zaitezte eta jar dezala bakoitzak hatz bana nire belauenen gainean.  
**Asier:** Ez alde egin, e, Porrotx! Nora zoaz?  
**Porrotx:** Txiza egitera nindoan!  
**Pirritx:** Ba agoantatu pixka bat eta jarri hemen zure hatza, alferrontzi!  
**Porrotx:** Uiiii (txiza eutsiz), bale, bale!

### 7) TXITXIRRI MITXIRRI

Txitxirri-mitxirri, komuni pan.  
 Nire semea errotan.  
 Joan nintzen mendira,  
 ikusi nuen erbi bat,  
 bota nion harri bat,  
 atera nion begi bat.  
 Zelemiñe kanpan,  
 zelemiñe kanpan.  
 Gari, gari, gari, gari... Hau!



Haur batzuk helduaren izterrean euren behatz bana jartzen dute. Gari, gari, gari... esatean erne daude. HAU! esatearekin batera helduak behatzen bat hartzen ahaleginduko da, haurrek azkar erretiratzen dituzten unean. Toki batzutan haurrek euren behatza ahora eramaten dute eta nagusiak ere hartzen duen behatza bere ahoan sartzen du. Beste aldaera bat izan liteke behatza sartu ordez Gari, gari, gari... esatearekin batera haurrak iheska hasi eta horietako norbait harrapatzea.

**Izaro:** Porrotx, zurea hartu du!  
**Porrotx:** Ez du balio. Erraz harrapatu duzu nire hatza, luze-luzea da!  
**Mikel:** Saltxitxa dirudi.  
**Amona:** Izan txintxo, Porrotx. Joan zaitez dendara eta eros ezazu erratz bat.  
**Porrotx:** Ongi da, amona. Baina ez jolastu ni etorri arte, e!  
**Pirritx:** Lasai, Porrotx! Bitartean zabuan arituko gara.



### 8) DILIN- DALAN

Dilin-dalan, bihar jaia,  
 eskolik ez.  
 Joango gara Tolosara  
 aitona-amonak I-KUS-TE-RA!

Zabuan ibiltzean kantatzeko.

**Porrotx:** Badator, badator buruhandia! To buruan! Hartu ipurdian!  
**Oihana:** Ai, ai! Min egiten duzu erratzarekin!  
**Pirritx:** A ze astakirtena! Utz iezadazu erratzaren kirtena.  
**Zuekin, erratz hegalariaaaa!!!**  
**Amona:** Kontuz baina erratza puskatzearekin!



### 9) ERRATZ HEGALARIA

Haurrak korroan,  
 erratza erdian,  
 erdiko biraka,  
 besteak hegaka.  
 Salto eta salto,  
 gira eta bira,  
 erratzak ukitzen bazaitu,  
 jokotik kanpo gelditu.

Biribilean jarrita erdian bat jartzen da erratza eskuetan duela. Lurraren paraleloan eta altuera baxuan birak ematen hasten da. Gainontzekoek erratza beren parera datorrenean salto egingo dute. Norbaiti erratzak jotzen dionean kanporatuta geratuko da. Erratzaren ordez soka ere erabil daiteke.

**Amona:** Erratzarekin ongi jolasten zarete, baina ea base-rria garbitzeko ere egoki astintzen duzuen!  
**Porrotx:** Gero, amona. Oraindik gehiago jolastu behar dugu.  
**Maialen:** Hori da. Zer iruditzen zaizue pirata eta lehorreko taldeak osatu eta ezkutaketan aritzen bagara?  
**Asier:** Jar gaitezen biribilean. Zotz egingo dugu.

### 10) ZOTZ (TXO-KO-LA-TE)

Txo-ko-la-te  
 Txoko, txoko, txokola.  
 Txoko, txoko, txokote.  
 Txokola, txokote,  
 TXO-KO-LA-TE!

Zotz egiteko erabiltzen da. Denak biribilean jartzen dira eta batek zotz egiten du azkeneko TE esan arte. Lau silaba duen edozein hitz baliagarria da: txo-ri-ma-lo, fut-bo-la-ri... Bost silaba-koekin ere egin liteke.

**Pirritx:** Ni, lehorrekoen kapitaina! Etorri nirekin, Miren, Iker, Julen...  
 - ZOTZ (TXO-RI-MA-LO)  
**Porrotx:** Eta ni, piraten kapitaina! Ea, ea nori egokitzen zaion ezkutatzeara!

- KA-TXI-PO-RRE-TA.  
(Porrotzek zotz egingo du)

**Porrotx:** Hau zortea, ezkutatzera goaz!

**Izaro:** Zuek bitartean astiro abestu, e!

### 11) PIRATAK ETA LEHORREKOAK .

Piratak, piratak eta lehorrekoak.  
Aurretik, atzetik, bi talde eraturik. (Bis)  
Korrika, iheska, ospa azkar hemendik.  
Lehorrekoak doaz bizi zuen atzetik. (Bis)

Bi talde osaturik ezkutaketan arituko dira talde batekoek beste-ko guztiak "harrapatu" arte.



**Mikel:** Bi ordu pasa dira eta Porrotx ez dugu aurkitzen.

**Pirritx:** Ezinezkoa da, Iñaki, Maddi... Denak harrapatu ditugu, baina Porrotx... non arraio ezkutatu da alproja hori?

**Oihana:** Begira, han dator!

**Porrotx:** Iuju! Gose nintzen eta amonarekin baserrira joan naiz ogitartekoa hartzera!

**Maialen:** Baina, baina, nola egin dezakezu hori?

**Pirritx:** Nolako aurpegia daukazun, Porrotx!

**Porrotx:** Aizue! Baserrira joan izan ez banintz, ez nukeen ikusiko bandera beltza duen itsasontzia.

**Asier:** Bandera beltza? Piraten bandera?

**Izaro:** Ba al dago piratarik, Pirritx?

**Pirritx:** Aspaldi bai, baina orain...

**Porrotx:** Baietz! Nik ikusi dut. Goazen denok ikustera.

### 12) PIRATEN ABESTIA

Trata, trata, euskal piratak, ei!  
Trata, trata, bandera airean.  
Trata, trata, euskal piratak, ei!  
Trata, trata, ezpata eskuan.

Zakua bete zilarrez,  
kolkoa tope koilarez,  
piratak altxorraren bila.  
Gu baino ausartagorik,  
gu baino handiagorik bada  
hona etor dadila.  
Denok gara adiskide,  
denok gara jolaskide,  
hator gure itsasontzira.  
Bete ditugu kupelak,  
jantzi ditugu txapelak,  
goazen ba itsaso erdira.

Gora, behera, ezker, eskuin,  
gora, behera, ezker, eskuin,  
inoiz ez dugu guk hartzen min.  
Gora, behera, ezker, eskuin,  
gora, behera, ezker, eskuin,  
orotan jokaten dugu fin.  
Gora, behera, ezker, eskuin,  
gora, behera, ezker, eskuin,  
ez dakigu zer den negarra.  
Gora, behera, ezker, eskuin,  
gora, behera, ezker, eskuin,  
entzun gure arteko algarra.

**Beñat:** Begira!

**Olaia:** Benetakoa dirudi.

**Pirata:** Zein izen du lur honek?

**Porrotx:** Euskal Herria.

**Mikel:** Barkatu. Zu pirata al zara?

**Pirata:** Jakina! Barrabas pirata naiz.

**Pirritx:** Orduan, kaka berdea egingo duzu.

**Pirata:** Eta nola dakizue hori?

**Porrotx:** Entzun, entzun abestiak dioena.

### 13) BARRABAS

Barrabas joan zen baratzera.

Jan zuen aza berdea.

Egin zuen kaka berdea.

Kaka berde hori norentzat?

Azkena eseritzen denarentzat.

Denek abesten dute lehenengo zatia eta arduradunak nahi duen agindua esaten du. Agindua ongi betetzean datza jokoa.



**Pirata:** Arraioa! Alga entsalada, alga zopa, sardina algekin... Dieta aldatu beharko dut.

**Porrotx:** Aizu! Ongi ikusten al duzu begi bakarrarekin?

**Pirata:** Egia esan, gero eta gutxiago ikusten dut.

**Pirritx:** Utz iezadazu begi bakarreko "kataleskopio" hori. Begira, begira han elefantea!

**Pirata:** Nola? Nik ez dut elefanterik ikusten.

**Porrotx:** Egia da bai gero eta gutxiago ikusten duzula!

### 14) IKUSI, IKUSI HAN!

Ikusi, ikusi han! Teilatu gainean.

Kriston aberea triziklo batean.

Tronpa du aurrean, isatsa atzean.

Ja, ja, ja! Elefantea da!



Abestiak dioena keinuka egin.

**Oihana:** Hain gutxi ikusten baduzu, zergatik ez gara jolasten itsumandoka?

**Mikel:** Baina ez dugu zapirik begiak estaltzeko!

**Pirritx:** Hori, hori!

**Porrotx:** Lasai, partxea begiz aldatuz, konponduta!

**Pirata:** Je, je! Harrapatzen dudana, nirekin eramango dut itsasontzian.

### 15) ITSUMANDOKA

Hartu zapia eta begiak estali.

Hiru bira emanda segika ibili.

Bat, bi eta hiru!

Bati zapia begietan jarri eta besteak harrapatzera abiatzen da. Bat harrapatzean nor den asmatzen badu, zapia kendu eta besteak jarri beharko du.



**Izaro:** Hankapalo batez jaio al zinen, Barrabas?

**Pirata:** Bai, zera! Marrazo madarikatua! Berak eraman zidan hanka, baina nik ondoren harrapatu eta arrain zopa ederra egin nuen berarekin.

**Porrotx:** Galtzerdi eta guzti jango zuen, ezta? A ze "pirriler"i! Ju, ju!

**Pirata:** Horixe! Harrezkero, hankamotzen lasterketan munduko txapelduna naiz.

**Pirritx:** Guk ere hanka baten gainean egiten dugu lasterketa, baina beste oinaren gainean harri bat eramanez.

### 16) HANKAMOTZEN LASTERKA

Zapataren gainean harritxo bat jarri.

Hanka baten gainean korrika ibili.

Ez utzi bada erortzen, ez izan tuntuna.

Iristen den lehena, gaurko txapelduna.

Hanka baten gainean ibili behar da, aireko oinaren gainean harri bat jarririk. Harria eroriz gero, geratu eta ongi jarri beharko dute abiatu aurretik. Helmugako marrara iristen den lehena izango da garaile.



**Pirata:** Lasterketa atsegina izan da, baina... ezagutzen al duzue pirata hankamotzen jolasa?

**Porrotx:** Ez. Nola da ba?

**Pirata:** Lurrean marra biribila marraztu, eta besoak gurutzatuta dituzuela hanka baten gainean jarri. Bi oinak lurrean jartzen dituen edota marrairik irteten dena kanpoan geratuko da.

**Pirritx:** Orduan, autotxoketan bezala elkarri bultza egin behar diogu.

**Olaia:** Kontuz nirekin, Porrotx zapata handi!

### 17) PIRATA HANKAMOTZA

Pirata hankamotza

balantzan gorputza.

Besorik gabe dabil

harantza, honantza.

Lagunengana doa

beti eginez bultza.

Bi oinak lurrean

eta bere heriotza.

Biribil handi bat marrazten da lurrean.

Jolasten dutenak hanka baten gainean eta besoak soin aurretik gurutzatuta jartzen dira eta salto eginez bata bestearen kontra oreka galarazten saiatzen dira. Bi oinak lurrean jartzean edo marrairik kanpora irteteen jokalaria kanporatu egiten dira.

**Pirata:** Ai, ai, ai! Nire artrosia. Gero eta zaharrago sentitzen naiz.

**Beñat:** Zein da Anbrosia? Zure izeba edo al da?

**Pirata:** Ez. AR-TRO-SI-A hezurretako mina da. Oso zaharra naiz eta...

**Pirritx:** Horri zahartrosia deitzen zaio.

**Pirata:** Ja, ja, ja! Oso ona!

**Maialen:** Barrabas, zuri giharrak erlaxatzea komeni zaizu. Ondokoak esaten duena egin eta ikusiko duzu.

### 18) ERAGIOZU

Eragiozu eskutxoari,

eskutxo txiki polita horri.

Eragiozu burutxoari,

burutxo txiki polita horri.

Eragiozu hankatxoari,

hanka txiki polita horri.

Abestiak dioen atelari eragin.



**Pirata:** Zuek bezalako lagun jolastiak atsegin ditut. Toki ederra da hau bertan geratzeko.

**Asier:** Nola diozu, gurekin geratu nahi duzula?

**Pirata:** Bai. Hamaika urte daramatzat itsasoan eta oso nekatuta nago jada. Ordua da nonbait sustraiak botatzeko.

**Pirritx:** Joango al gara amona Josefinaren baserrira?

**Porrotx:** Horixe! Bai horixe! Goazen gure baserria era-kustera!

### 19) TXIRUKAKA

Txirukaka, txirukaka,  
katxi, mari-maru, ei!

Txirukaka, txirukaka,  
katxi, mari-maru, ei!

Ñogi, ñogi, ñogi,  
katxi, mari-maru, ei!

Ñogi, ñogi, ñogi,  
katxi, mari-maru, ei!



Denak ilaran jartzen dira bata bestearen atzean gerritik edo sobal-datik aurrekoari helduta. Txirukaka... esatean aurreraka doaz. Ñogi, ñogi, ñogi esatean atzeraka. Ei! esatean, berriz, besoak gora altxatzen dira. Erritmoa aldatzen doa: hasieran erritmo normala, ondoren azkarra, jarraian geldoa, segidan oso azkarra...

**Olaia:** Aizue, kankailuok, txikiok nekatu egiten gara aldapan gora!

**Beñat:** Ni ere jota nago.

**Pirritx:** Igo bizkarrera, arrekonkon!

### 20) ARRE-ARRE MANDAKO

Arre-arre mandako,  
bihar Tolosarako,  
etzi Iruñerako.

Handik zer ekarriko?

Zapata eta gerriko.

Haiek norentzako?

Maialenentzako!

Helduak haurra magalean (izterren gainean) hartzen du biak elkarri begira daudela. Kantaren erritmoan hankak mugitzen ditu gora eta behera. Bukatzean, haurren izena esaten da: Ikerrentzako! Haurra bizkarrean eramatean ere abestu daiteke.

**Pirata:** Non dago ditxosozko amonaren baserria?

**Pirritx:** Gaztainondoa pasa eta bertan dago.

**Pirata:** Zer da gaztainondoa?

**Porrotx:** Zuhaitz bat.

**Pirata:** Zuhaitzek izena dute ala?

**Pirritx:** Noski. Ondorengo jolasarekin ikas dezakezu.

### 22) KARIKATURA

Karikatura, (bi kriskitin)

Izenak, (bi k)

Zerenak, (bi k)

Hegaztienak, (bi k)

Adibidez: (bi k)

usoak, (bi k), txepetxa, (bi k), arranoa, (bi k)  
belea, (bi k), txantxangorria, (bi k), kukua, (bi k)...

Moztu haria. (bi k)

Denak biribilean jarriz banan-banan eta jarraian izanak esaten doaz eta denek kriskitinak jotzen dituzte. Gai bat aukeratu (hegaztiak) eta horri buruzko izenak esango dituzte. Norbaitek ez badaki nola jarraitu "moztu haria" esango du eta hurrengoak berriro "karikatura" esanez abiatuko da.

**Izaro:** Begira, hor dago baserria!

**Pirata:** Hau nekea! Makurtu egingo naiz pixka batean.

**Porrotx:** Geratu, geratu horrela. Salto egingo dugu gainetik.

**Pirata:** Zer?

**Pirritx:** Lasai, Barrabas, denok makurtuko gara bata bestearen atzetik.

### 23) BATEAN, SALTO EGITEAN

Batean, salto egitean.

Bian, jo ipurdian.

Hiruan, ukitu buruan.

Lauan, itsu-itsuan.

Bostean, korrika batean.

Seian, atximur alaian.

Zazpian, beso azpian.

Zortzian, oihu-irrintzian.

Iijiji!



Bata bestearen artean bi metro inguruko tarteak utziz jokalarriak makurtuta jartzen dira ilaran. Lehenengo dagoena besteen gainetik saltatzen hasten da bakoitzean esaldi bat esanez: Batean, salto egitean. Bian... Denen gainetik saltatzen duenean, azkenaren jarraian makurtu egingo da,

besteak bezala. Bigarren zegoenak berdina egingo du eta ondoren hirugarrenak, laugarrenak...

**Mikel:** Iritsi gara. Amona, amonaaa!

**Txakurra:** Guau, guau!

**Pirata:** Nire hanka, nire hankapalao!

**Amona:** Utzi bakean gizona, Pittin!

**Pirritx:** Ez urduritu, Barrabas. Txakurra gure laguna da eta jolasean ari da. Gu ere biribilean eserita jolastuko gara.

#### 24) NIRE LAGUNAREN TXAKURRA

Nire lagunaren txakurak,  
nire lagunaren txakurak,  
nire lagunaren txakurak  
gitarra jotzen du.  
Fli fla fli flaio,  
fli fla fli flaio,  
fli fla fli flaio,  
gitarra jotzen du.

Korroan eserita, erritmoari jarraituz, ezkerreko lagunaren iztarraren gainean jo, gero norberaren izterretan eta ondoren eskuinekoarenetan. "Gitarra jotzen du" esatean, gitarra jotzen ari balira bezala egin. "Fli fla fli flaio" esatean, biolina joko balute bezala egin. Erritmoaren abiadura aldatzen joaten da. Hasieran erritmo normala, gero lasaia, ondoren azkarra...

**Pirritx:** Josefina, Barrabasek gurekin geratu nahi du bizitzan.

**Amona:** Egia esan, baserrian beti lagungarri da bi beso gehiago izatea.

**Porrotx:** Bai, bi beso izan beharko dute...

**Pirritx:** Bi beso eta hanka... ja, ja, ja!

**Pirritx:** Hankapaloarekin baratzean zulotxoak egin eta letxuak landatuko ditugu.

**Denok:** Je, je, je...

**Amona:** Lagun berriaren etorrera ospatu beharko dugu! Jarri denok biribilean eta altxa besoak.

**Pirritx:** Aire, aire!!

#### 25) NOR DA DANTZARI.

Nor da dantzari jai handi honetan.  
Zuen pozgarri hementxe bertan.  
Dantza ezazu zuk, *Garazi*, nirekin.  
Dantza ezazu, zuk badakizu.



Dantza euskal estiloan, besoak gora altxatuz eta kriskitinak joz. Hasieran bakar bat hasten da, gero bi, jarraian lau... denek dantza egiten bukatzen dutelarik.

**Pirata:** Fandangoa eta arin-arina politak dira, baina eza-gutu nahi al duzue piraten dantza?

**Denok:** Bai, bai.

**Pirata:** Gauden bezala jarraituz, biribilean, errepikatu nik diodana.

#### 25) TRIKITIXA

Eskuak aurrera (bis)

Eskuak atzera (bis)

Trikitixa, trikitixa,

trikitixa, xa,xa. (bis)

Eskuak aurrera (bis)

Eskuak atzera (bis)

Buru gora (bis)

Ipurdia kanpora (bis)

Hankak okertu (bis)

Begi bat itxi (bis)

Mingaina atera (bis)

Besoak eskegi (bis)

Hanka bat gora...

Trikitixa, trikitixa, trikitixa, xa, xa.

Denak korroan jarriz dinamizatzaileak aginduak ematen ditu. Beste guztiek aginduak errepikatzen dituzte. Imitazio jolasa da.



#### Amaiera

**Pirritx:** Orduan, gurekin geratuko al zara?

**Pirata:** Euskal Herrian lagun onak aurkitu ditut.

**Porrotx:** Eta bihurriak, e, Barrabas!

**Pirata:** Paraje ederra da eta, baserri honetatik itsasoa ageri denez, kresalaren usaina ere barneratzen da. Egia esan, pirata zahar honen hezurren atsedenerako txoko paregabea da.

**Amona:** "Itsasertzeko herri txiki honetan, kaioak hegan, itsas olatuen zurrumurrua lagun, haurrak, pailazoak, eta... Barrabas pirata jolasten ari dira kai ondoko plazan".

**Piratak:** Pirata txikiak, prest?

**Denok:** Baaaiiii...!!

**Pirata:** Aurrera ba!!

**Denok:** Eeee...

Barrabas!

Iujuuu...!



**Nolakoa da Kubako hezkuntza sistemaren egitura?**

**Martinez.**- 4-5 urtera arte *kindergarten* edo *círculo infantil* deitzen diegun lekuetan egoten dira. Amek urtebeteko amatasuna edukitzen dute. *Kindergardenetan* ez dago haur guztientzako lekurik, baina lanean ari diren emakume guztien haurrentzat bai, horiei lekua ziurtatzen zaie.

Ondoren, Lehen Hezkuntzan hasten dira, 1. mailatik 6. mailara. 7. mailatik 9. mailara Bigarren Hezkuntza egiten da eta, gero, 10. mailatik 12. mailara unibertsitate aurrekoa, hots, zuen Batxilergoa. 12. maila bukatu eta sarrera azterketa egin ondoren, unibertsitatera joaten dira. Lanbide Heziketa egin nahi dutenek bi aukera dituzte: unibertsitate aurrekoa egiten badute, eskola teknikora joaten dira eta, egiten ez badute, erdi mailako eskola teknikora.

**Romero.**- Hezkuntzaz arduratzen diren bi Ministerio daude: Hezkuntza Ministerioa eta Goi Mailako Hezkuntzako Ministerioa. Ministerio bakoitzean kontseilu bat dago; Hezkuntza Ministerioan, ministroarekin batera, hainbat eskolatako zuzendariak parte hartzen dute, eta Goi Mailako Hezkuntza Ministerioan, unibertsitate guztietako errektoreak edo zuzendariak eta irakasle taldeak.

Hezkuntza Ministerioak Lehen Hezkuntzaren, Bigarren Hezkuntzaren, unibertsitate aurrekoaren eta hezkuntza tekniko-profesionalaren ardura du. Goi Mailakoa, berriz, unibertsitate irakaskuntzaz soilik arduratzen da.

**Martinez.**- Ministerio bakoitzaren barruan probintzia mailako erakunde bat dago, eta guztira 14 probintzia dira. Hezkuntzako Probintzia Zuzendaritzak deitzen diegu. Horieta bakoitzaren barruan Udaleko Zuzendaritzak daude, eta bakoitzaren barnean eskola pila bat.

**Dauden ikastetxe guztiak bi Ministerio horien ardurapean al daude?**

**Martinez.**- Ez, badira beste batzuk ere. Adibidez, Indar Armatu Iraultzaileak bere eskolak dauzka eta espezialistak prestatzen dira. Osasun Publiko Ministerioak ere bere eskolak ditu eta ikasle horien ardura berea da.

**Hezkuntza curriculum eta hezkuntza proiektuak nork zehazten ditu, ikastetxeek ala Hezkuntza Ministerioek?**

**Romero.**- Hezkuntzako bi Ministerioak dira Kubako edozein eskolatan egiten den lan metodologiko guztiaren arduradun. Curriculum denetan berdina da, baina herrialde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartzen dira.

Curriculum kubatarra da, hots, Kuban egina, pentsatua eta Kubarekiko identifikazioa duena. Nazio ikurrak eta klase ikurrak lantzen dira, azken horiek ezkerreko ikuspegitik: justizia, banaketa, elkartasuna... Hori guztia plan metodologikoan zehazten da.

**Martinez.**- Ikasturtea bi seihilekotan banatzen dugu eta plan horretan seihileko bakoitzean egingo diren jarduera metodologiko guztiak zehazten dira: emango dituzten eskolak, ikasgaien programak, ekintza zientifiko-pedagogikoak, sailen lan metodologiko guztiak...

**Balioak lantzen al dira hezkuntzan?**

**Martinez.**- Bai, programaren barruan daude eta estrategia oso bat dago horretarako. Dударik gabe, etapa batean balio batzuk galdu egin ziren eragin ekonomikoengatik eta beste zenbait eraginengatik. Orain eskola eta fakultateetan estrategia orokor bat dago, balio horiek errekupeatzeko.

**Zein balio?**

**Romero.**- Sistemari lotutako balioak dira, iraultza prozesuarekin lotura dutenak: elkartasuna, abertza-




Kubako  
irakasleontzat  
vanguardista  
izendatua  
izatea  
sekulakoa da,  
ikastetxeko,  
herriko,  
herrialdeko  
edo nazioko  
irakasle onena  
izendatua  
izatea  
baita

Orlando **Martinez**

Oscar **Romero**

**E**

Momentu  
batean balio  
batzuk galdu  
egin ziren  
eragin  
ekonomikoenga-  
tik eta beste  
zenbait  
eraginengatik.  
Orain eskola eta  
fakultateetan  
estrategia  
orokor bat dago  
balio horiek  
errekuperatzeko



letasuna, zintzotasuna, errespetua, duintasuna... Balio unibertsalak dira, eta oso lotuta daude Kubako iraultzarekin.

**Zein ikasketa egin behar dira Kuban irakasle izateko?**

**Romero.**- Irakasle izateko, lehen-dabizi, pedagogiako oinarrizko ikasketak egin behar dira, eta ondoren pedagogiako goi mailako ikasketak. Ikasketa horiek egin gabe ezin da eskolarik eman.

**Lanbide hori ongi ikusita al dago gizartean?**

**Martinez.**- Bai, irakasle asko daude eta ongi ikusitako lanbidea da. Mendi aldean haur bakarra baldin badago ere, irakasleak haraino joaten dira eta haurrak ez du herrira jaitsi beharrik izaten.

**Ikasle bakarreko eskolak daude, orduan?**

**Martinez.**- Kasu batzuetan bai. Lehen esan dugun bezala, biztanle guztien hezkuntzarako eskubidea ziurtatzen eta bermatzen dugu. Inguruko beste zenbait herrialdetan haurrek eskolara jaitsi behar izaten dute, sarritan ordubeteko bidea eginez. Kuban alderantzizkoa gerta-

tzen da, irakaslea gerturaten da haurrengana.

**Hilero-hilero "vanguardiko irakasleak eta ikasleak" hautatzen dira. Zer da hori?**

**Martinez.**- Irakasleen artean egiten den proba bat da eta, bertan irakasleak ebaluatzen dira; batzuek ebaluazio positiboa jasotzen dute eta beste batzuek negatiboa. Positiboa jasotzen dutenen artean irakasle onena hautatzen dute eta hori izaten da vanguardista. Proba hauek eskolan, herrian, herrialdean eta estatuan egiten dira. Hezkuntzaren eta Kubaren aldeko jarrera eta lana saritzen dira.

**Romero.**- Vanguardista izateko, irakasle onaz gero, lankide, herritar eta guraso bezala ere jarrera ona eduki behar da. Hau da, arlo pedagogikoaz gain, inplikazioa, ordutegia, bolondres lana eta abar ere baloratzen dira. Eta zentro guztietan horretan laguntzeko *emulador* deitzen dioten pertsona bat dago. Kubako irakasleontzat *vanguardista* izendatua izatea sekulakoa da.

**Ikasleen kasuan zer hartzen da kontuan?**

**Romero.**- Eskolako martxa, lanetako parte-hartzea, lagunekiko jarrera eta abar baloratzen dira.



**Azpiegitura aldetik nola hornituta daude ikastetxeak eta fakultateak?**

**Martinez.-** Eraikuntzak ikuste hutsarekin blokeoaren eta Kubako egoera ekonomikoaren eragina islatzen da. Errekurtsoen erabilera eta berrerabilera izugarria da.

Eraikuntzak arruntak dira, batere luxurik gabekoak, dagoen materialarekin egindakoak. Adibidez, ikasleen egoitza batean bi logela bereizteko oihal bat zegoen jarrita adreilurik ez zutelako.

Eskoletan kolore gutxi ikusten da, dagoen material guztia irakasleek birziklatutako materialekin egindakoa baita. Ikasleen kolore desberdinetako uniformeak dira bizitasuna ematen diotenak. Izan ere, derrigorrezkoa da uniformearekin joatea, eta

gainera, elementu berdintzailea dela esan daiteke, ikasleen arteko desberdintasunak ekiditeko balio baitu.

Testuliburuei dagokienez, ikasleek ez dute beren liburu propiorik, eskolan daudenak erabiltzen eta banatzen dituzte denek. Orain ordenagailuak jartzen ari gara. Zenbait eskolatan, argi-indarrak ez egon arren, eguzki plaken bitartez ordenagailuak jarri dira.

**Romero.-** Unibertsitateak, aldiz, ondo hornituta daude. Fakultate guztietan dago ordenagailu gela eta 24 ordutan irekita egoten da. Liburutegiak ere handiak eta ondo hornitutakoak dira. Unibertsitatearen leloa "denontzako unibertsitatea" da eta ikasleek dute lehentasuna baliabideak erabiltzeko garaian.



Ikastea  
beharrezkoa da  
iraultzaren  
nondik norakoak  
ulertu ahal  
izateko.  
Liberatzen ziren  
zonaldeetan  
egoera aldatzen  
zen.  
Alfabetatzea  
ahalik eta  
gehien zabaldu  
zen, soldadu,  
heldu, herritar  
eta haurren  
oinarritzko eta  
lehendabiziko  
premia  
hezkuntza  
baitzen



## Antzerkia doltza gainean eta eguneroko bizitzan

Patxi Santamaria eta Inaxio Tolosa antzezleek antzerkia edo joko dramatikoak erakusten eta lantzen dute Zarauzko ikastetxe guztietan. 6. mailako ikasleekin lantzen dute eta ikasgai baten barruan txertaturik dagoen derrigorrezko ikasgaia da. Duela bostasei urte hasi ziren herri mailako proiektu honekin. Egiten duten lanaren eta antzerkiak eskura jartzen dituen aukeren berri erango dute HIK Hasi Udako Topaketetan.

### Nolakoa da Zarauzko ikastetxetan lantzen ari zareten proiektua?

**Patxi Santamaria.**- Zarauzko eskoletan kezka bat zegoen; plastika, musika, dantza eta beste hainbat jardura egiten ziren, baina eskola ordue-tatik kanpo. Hori zela eta, antzerkia eskola ordutan sartzeko aukera planteatu zen eta, horren haritik, guk proiektu bat aurkeztu genuen.

Hala, Lehen Hezkuntzaren amaieran, 6. mailan, antzerkia derrigorrezko ikasgai modura txertatu zen. 4. eta 5. mailatan dantza lantzen da eta 6. mailan antzerkia. Adin egokia eta interesgarria

dela iruditzen zaigu. Dena dela, guk lantzen duguna edozein mailatan lantdu daiteke.

**Inaxio Tolosa.**- Proiektuaren helburua ez da eskolan aktoreak sortzea, baizik eta hainbat gaitasun garatzea. Aktore izatea geroago etorriko da agian.

Zentzu horretan, badakigu lanaren ondoren fruitua ikusi nahi izaten dela, baina ez zaigu gustatzen gurasoen aurrean eta eskolako jaialdietan antzeztea, oso urduri eta tentsio handiarekin egoten baitira ikasleak. Nahiago dugu beste mailako ikasleen aurrean antzeztea, giro lasaiagoan. Beste ikasgaietan, Matematikan esaterako, ez da erakustaldirik egiten.

Bada, antzerkiangauza bera. Onak direnek edo nahi dutenek egin dezatela, baina denak behartu gabe.

### Zertarako balio du antzerkiak?

**Santamaria.**- Eskola barruan antzerkia oso garrantzitsua dela uste dugu. Oso ikasgai interesgarria da, bizitzaren erakusle bat izan daitekeelako, eta gainera, ikasleen bilakaeran laguntzen du.

Irakasleek ere esaten dute oso lagungarria dela jendearen aurrean lanak aurkezten edo taldean integratzen ikaslea. Zer gertatzen da errepikatzaileekin? Nola integratzen dira talde berrian? Gure lana horretarako lagungarri dela iruditzen zaigu.



**Tolosa.-** Ikasleek beraiek ere argi daukate zertarako balio duen antzerkiak. Badakite jendaurrean zerbait egin edo aurkeztu behar dutenean ondo eta eroso sentitzen lagunduko diela antzerkiarekin ikasten dutenak. Eta noski, taldean lan egiten ikasteko baliabide ezin hobea da.

#### Zer lantzen da antzerkiarekin?

**Santamaria.-** Denetik pixka bat: gorputza, ahotsa, irudimena, sensibiltzazio lana, jokoak, bat-batekotasuna... Helburua da ikasleei gorputza, ahotsa eta adierazpena ezagutzeko aukera eskaintzea, maila tekniko bat lortuz, eta era berean, ondo pasatzea eta beren sormena lantzea.

**Tolosa.-** Antzerkia *arte* guztiak bilzen dituen artea denez, obrak, autoreak, antzerkiaren historia (gizakiaren historia), eskulanak, eszenografia, jantziak, musika, dantza, idazketa eta abar lantzeko parada ematen digu. Horrela, autore (idazle), aktore, eszenografo, ikusle, kritikoa eta zuzendari bihurtzen dira ikasleak.

**Santamaria.-** Gaurko *zibilizazio*ak pertsona iragazgaitzak sortzen ditu, oskol gogor batez hornituak, eta bertan guztiak errebotatzen du: argi esateko,

pertsona gogor eta sentimendurik ga-beak. Horren guztiaren aurrean, sentikortasuna eta ohiko zentzumenen trebetasunak lantzeko zenbait ekintza proposatzen dugu, hala nola: ikusmena, entzumenena, ukimena, dastamena eta usaimena lantzen ditugu, horietako zenbaitek atrofia sintoma argiak azaltzen dituela kontuan hartuta.

**Tolosa.-** Bai, liluragarria da gure pertzepzio eta behaketa gaitasuna hantitzea, zentzumenak edozein estimulu mota hartzeko beti prest egotea, inguruko mundu liluragarriari irekita egotea eta sentitzeko tresna dugun gure gorputza zabaldua edukitzea, nahiz eta askotan hor dugula ere ahazten dugun!

**Zarauzko ikastetxeetara zuek joaten zarete antzerkia irakastera. Horretan adituak diren irakasleak behar al dira?**

**Santamaria.-** Ez da beharrezkoa. Egia da irakasleek ezin dutela denetik jakin, baina arlo batzuk jorra ditzakete. Beldurra ere badago, hori hala da. "Guk nola egingo dugu?" galdetzen dute. Horregatik, ez dela hain zaila erakutsi nahi

dugu Hik Hasi Udako Topaketetako ikastaroan, eta zenbait tresna ematen saiatuko gara.

#### Zein tresna eskainiko dituzue?

**Tolosa.-** Bakoitzaren gaitasunak eta taldeko lana garatzea da guri interesatzen zaiguna. Horretarako, oinarriko eskema batzuk emango ditugu. Ikastaroa ez da teknikoa izango, antzerkiak zer lantzeko aukera ematen duen irakatsiko dugu, hots, bideak erakutsiko ditugu. •

**"Bakoitzaren gaitasunak eta taldeko lana garatzea da guri interesatzen zaiguna"**



# Teknologia Berriak

## Internet gela barruan?


Zer da Internet eta zer tarako balio du? Zertarako erabil dezakegu hezkuntzan? Gela barruan sar al daiteke? Artikulu honetan eta hurrengoetan galdera hauei erantzuten saiatuko raiz.

Orain arte daukagun datu-baserik handiena Internet da. Interneten ia nahi dugun informazio guztia lor dezakegu, eta bestalde, zerbitzu pila bat eskaintzen dizkigu. Jarraian aurkezten den zerrendan Interneten erabil ditzakegun zerbitzu batzuk agertzen dira:

- **www (World Wide Web):** hau da gehien erabiltzen den zerbitzua. Honen bidez gero aipatuko ditudan zerbitzu guztietara hel gaitzke. www-ren bidez informazio dexente lor dezakegu (<http://www.eurosur.org/spa/educacio.htm>).

- **Beri taldeak:** iragarki taula baten antzekoak dira. Interneten bidez idaztea nahiz irakurtzea posiblea da:

-<http://www.eibar.org/zerrenda/besteak.html>  
-<http://www.pangea.org/personasenaccion/educacion.html#noticias>



Iker LASKIBAR

Hezkuntzari aplikaturiko Teknologia Berrietan trebatua

-<http://averroes.cec.junta-andalucia.es/news/news.php3>  
-[http://biblioteca.uam.es/paginas/Profesorado/enl\\_educacion.html](http://biblioteca.uam.es/paginas/Profesorado/enl_educacion.html)  
-<http://100cia.com/news/>

- **Bideo hitzaldia:** honen bidez beste lagun batzuekin hitz egin dezakegu gure pantailan ikusten ditugun bitartean. Horretarako web kamera bat erabili behar dugu. Zer da web kamera? Ordenagailuan konektatzen dugun kamera txiki bat. Honela, beste leku batean dagoen pertsona baten hitzaldia ikus eta entzun dezakegu. Irudi zehaztasun egokia

lortzeko, ordea, konexio ona eduki behar dugu.

- **Bilatzaileak:** Interneten hainbeste informazio dago non bilatzaileen erabilera beharrezkoa bihurtu den. Bilatzaileak informazioa bilatzeko tresnak dira. Hainbat motatako bilatzaileak dauzkagu: gaikakoak, orokorak eta abar. Horiekin arazoa konponduta zegoela zirudien, baina ez da hala izan, orain bilatzaile gehiegi sortu baitira, eta hori ere arazo bilakatu da. Ondorioz, bilatzaileen bilatzaileak sortu dira. Horiek gai bati buruzko bilatzaile egokienak bilatzen dituzte.

-<http://www.buscopio.com> (bilatzaileen bilatzailea)

-<http://www.aurki.com>  
-<http://www.google.com>  
-<http://www.ole.es>  
-<http://www.ozu.es>  
-<http://www.yahoo.es>

- **Eztabaida zerrendak:** gai bati buruz interesatuak daudenek izena ematen dute eta taldeko guztiek besteen iritziak eta erantzunak posta elektronikoz jasotzen dituzte. Horrela, bai irakurtzeko bai idazteko aukera daukate. Eztabaida zerrendei esker lan talde asko sortzen ari dira.

-<http://www.rediris.es/list/tema/tematic.es.html>  
-<http://ued.uniandes.edu.co/servidor/em/Listeduc.html>  
-[http://members.tripod.com/DE\\_VISU/discusion.html](http://members.tripod.com/DE_VISU/discusion.html)



-<http://www.geocities.com/SiliconValley/5766/page9.htm>

- **Foroak:** foroetan jendeak bere galderak uzten ditu eta sartzen direnek erantzuteko aukera dute. Edonork parte har dezake, bai eta idatzitako galderak eta erantzunak irakurri ere. Ia edozein gairi buruzko foroak aurki ditzakegu.

- **FTP (File Transfer Protocol):** fitxe-roak (dokumentuak, softwarea eta abar) ordenagailuen artean aldatzeko sistema bat da. Normalean logina eta gakoa beharrezkoa da. Dena den, ftp batzuetan login anonymous edo guest idazten badugu eta gakorik ez, sartzeko aukera ematen digute.

- **Posta elektronikoa:** posta elektronikoari esker gure mezuak bidaltzen ditugun helbidera berehala iristen dira. Ohiko posta baino abantaila gehiago ditu. Alde batetik azkarragoa da, eta baita merkeagoa ere. Gainera, posta gutxiago galtzen da bidean. Posta elektronikoak argazkiak, dokumentuak eta abar bidaltzeko aukera ere ematen du. Abantailarik handiena, dena den, ekonomikoa da. Mezua pertsona bati edo ehun pertsoneri bidaltzeak, lau lerroko mezua bidaltzeak edo mila orriko lana bidaltzeak, prezio bera du, informazio digitalak ia ez dauka pisurik eta. Interneten bidez posta elektronikoko kontu bat sortzeko aukera ere badugu.

-<http://www.euskalerrria.org>  
-<http://www.hotmail.com>  
-<http://www.latinmail.com>  
-<http://www.mixmail.com>  
-<http://www.biwemail.com/src/login.php>

- **Telnet:** gure ordenagailutik beste ordenagailu bat erabil dezakegu telneti esker. Beste ordenagailuarekin konektatu eta gero, ordenagailu hark baimena eman behar digu erabili ahal izateko. Gaur egun programa batzuei esker, beste ordenagailu bat konpon

dezakegu fisikoki dagoen lekura joan gabe. Adibidez, nire ordenagailutik Erroman dagoen ordenagailu bat konpon dezaket biak Interneten bidez konektatuta baldin badaude.

- **Txat guneak:** txat guneak telefonoak bezalakoak dira, baina hitz egin beharrean idatzi egiten da. Mezu bati idatzi eta beste pertsonak berehala irakur dezake bere ordenagailuan, eta bueltan erantzun. Kontuan izan behar dugu ikastetxeek eskuarki tarifa finkoa daukatela eta gaur egun posible dela telefono moduan erabiltzea; mikrofonoa eta bozgorailuak soilik behar ditugu. Zer esan nahi du horrek? Prezio berean hitz egin daitekeela ordenagailuaren bidez Mutrikun edo Kuban dagoen pertsona batekin. Hau da, konexio ona izanez gero, ikasleek Ingalaterran dauden beste ikasleekin hitz egin dezakete eta ikastetxeak ez du diru gehiago gastatuko Interneten bidez informazioa bilatzen aritzen badira baino.

### Interneten zerbitzuak gelan


Orain arte Internetek eskaintzen dizkigun zerbitzuak ikusi ditugu. Baina zertarako erabil ditzakegu zerbitzu horiek hezkuntzan?

o Proiektu kooperatiboak egiteko: beste eskolekin proiektu kooperatiboak heda ditzakegu. Adibidez, kultura desberdinak lantzeko, hizkuntzen ahoskera eta ortografia lantzeko, irakasleek arazo berdinak daukatenean elkarri laguntza emateko, irtenbideak bilatzeko eta abar.

o Eskolaren, gelaren, irakasgaiaren web orria egiteko. Nire ustez, hau oso garrantzitsua da. Ikastetxearen web orriaren bidez gurasoek ikastolako berriak, emango diren hitzaldiak eta abar irakur ditzakete. Ikastolako aldizkaria ere hor jar daiteke. Gelaren web orrian ebaluaketen datak, egin behar diren lanak, noiz izango diren hurrengo ibilaldiak, urtebetetzeak... ager daitezke. Irakasgaiaren web orria egiten badugu, apunteak, beste web orri interesgarriekiko loturak... jar daitezke.

o Txat guneen bidez, beste zentroetako ikasleekin eztabaidak, lan kooperatiboak eta abar burutzeko.

o Lanak dokumentatzeko: irakasleek informazio gehiago aurkitzeko aukera daukate. Ikasleek bere



lanak egiterakoan informazio gehiago bila dezakete ordenagailuan eskolako liburuetan baino. Adibidez, Nasak daukan orrian (<http://www.nasa.gov>) ikasleek aurreko orrialdean agertzen diren argazkiak lor ditzakete bere lanetan ipintzeko.

o Software didaktikoa lortzeko: Interneten badaude programak jaisteko aukera ematen duten orri batzuk:  
-<http://www.softonic.com>  
-<http://www.twocows.com>

Programa pila bat lor ditzakegu orri horien bidez. Programa bat jaitsi baino lehen begiratu egin behar dugu ezaugarrien artean ea Freeware ala Shareware jartzen duen. Software bat Freeware izateak nahi dugun denbora guztian erabil dezakegula esan nahi du; Shareware ipintzen badu, ordea, erabiltzeko epea amaituko zaiola esan nahi du; hau da, hamabost egun edo hilabeteren ondoren, nahiz eta programa hori erabili nahi izan, ordenagailuak ez ditu utziko. Beste batzuetan, Shareware jartzen duenean softwareari aplikazio batzuk falta zitzaizkiola esan nahi du. Orduan, programa mota bat gustukoa badugu Freeware bertsioa lortzen saiatu beharko dugu.

o Beste material didaktikoak lortzeko: Interneten bidez material didaktiko asko ezagut dezakegu. Adibidez, beste lekuetan erabiltzen diren programa didaktikoak, material digitala eta abar.

o Tutoretza telematikoa egiteko: aukera hau unibertsitatean erabiltzeko oso egokia izan daiteke. Ikasleek ez daukate tutoretza orduetan bulegora joan beharrik eta beste batzuk ez daukate joateko aukerarik ere. Gaur egun ikasle askok ikastearekin batera lan egiten dute (ikasleen bizitza ez da hain erraza eta). Horregatik, posta elektronikoa edo txat gunea erabiltzea ez zait ideia txarra iruditzen.

o Beste lekuko irudiak linean ikus-

teko: munduko leku pila bat "bisita" ditzakegu web kameren bidez, hau da, beste leku batean orain gertatzen ari dena ikusteko aukera daukagu. Leku batzuetan kamara kontrolatzeko eta argazkiak ateratzeko aukera ere badugu. Adibidez, irudi hauek Interneten daude:

-<http://www.la-concha.com/camext.htm>  
-<http://www.fallsview.com/CamControl/ModemControl.shtml>  
-<http://www.earthcam.com/usa/newyork/timesquare/>  
-<http://www.sasinet.com/docs/europavista/docs/italia/roma.htm>  
-<http://www.paratype.com/camera/default.htm>

o Egunkariak irakurtzeko: ia egunkari guztiek web orria daukate. Honela, batzuk eta besteek gai bati buruz esaten dutenaren konparaketa egin ondoren, hedabideei buruzko hausnarketa bat egin dezakegu ikasleekin. Nola azaltzen da berri bera egunkari desberdinetan? Zein motako analisiak egiten dira egunkari bakoitzean? Orain dela sei urte, zer esaten zuen ez dakit nork gai bati buruz eta zer esaten du orain? Nori buruz hitz egiten dute egunkari batzuek eta nori buruz ez dute inoiz hitz egiten? Egunkarien helbideak nahiko erraz aurkituko dituzue bilatzaile baten bidez.

o Irratia entzuteko: era berean, irratiek ere web orriak dituzte. Beren web orriek irratia entzuteko aukera ematen digute eta zenbaitek aurreko egunetako programak entzuteko aukera ere bai.

-<http://www.irratia.com/sintonia/>  
-<http://www.eitb.com/euskara/programak/programa.asp?id=EI>  
-<http://www.eitb.com/euskara/programak/programa.asp?id=RE>  
-<http://www.eitb.com/euskara/programak/programa.asp?id=RV>  
-<http://www.eitb.com/euskara/programak/programa.asp?id=EG>  
- <http://www.cadenaser.es>  
- <http://www.los40.com/#>

o Telebista ikusteko: telebista ere ikus daiteke Interneten bidez. Oraingoz kalitatea nahiko txarra da, baina gero eta hobeago izango dela suposatzen da. Egunkarietan bezala, berezko bilatzaileak dituzte gai bati buruz informazioa lortzeko eta, batzuk ikusteko aukera ere bai.

- <http://www.eitb.com/euskara>  
- <http://www.a3n.tv/mEntrada.asp>  
- <http://www.rtve.es/tve/>  
- <http://www.telecinco.es/>

Uste dut nahikoa duzuela udan praktikatzeko. Ea datorren kurtsoan ikasten jarraitzen dugun. Animo eta ondo izan. ●



Bide eginean jarraitzen  
dugu zuen ekarpenekin  
eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu  
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa  
duen edonoren parte-  
hartzea gustu handiz  
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa  
euskal hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.



# Berriak

## ekaina

# N obedadeak

## Eta orain... jolas eta abesti gehiago!

Haur-jolasen abestiak III CDa eta zinta kaleratu berri ditu HIK HASTik. 24 abesti berriekin osatutako lan honekin haur-jolasen bildumari beste ekarpen bat egintendio.

Haur-jolasen abestiak III lanak erritmo biziko 24 abesti alai biltzen ditu Kanta guztiak jolasean aritzeko dira, bakoitzajolas bati dagokiolarik. Batzuk haur txikienezako modukoak dira, eta gainontzekoak taldeka jolastekoak.

Andoingo Garate estudioetan egin diren grabazio lanetan 100 ikasle inguru eta zenbait irakasle aritu dira, eta guztira Euskal Herri osoko zortzi ikastetxe hartu dute parte: Andoingo Larramendi ikastola, La Salle Berrozpe ikastetxea eta Ondarreta ikastetxea, Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastola, Pasaiaiko Pasaia-Lezo lizeoa, Hendaia-ko ikastola, Usansoloko Unkina ikastetxea eta Donostiako Ekintza ikastola.

Kantuen arteko loturak eta jolasen aurkezpenak Pirritx eta Porrotx pailazoek, amona Josefina eta Barrabas piratak egiten dituzte, Hernaniko haur talde baten laguntzaz. Istorioa, jolasak eta abestiak tartekatzen dira 41 minutu-ko iraupena duen lan honetan.

Kanta batzuk herrikoiak dira eta beste batzuk Hik Hasiko zenbait taldekidek asmatuak. Musika asmatzen eta moldatzen, aldiz, Xabier Zabala Ekintza ikastolako irakaslea aritu da Haur-jolasen abestiak I eta II lanetan bezalaxe. Edurne Iturbe trikilitariak eta Leire Elices biolin-joleak ere parte hartu dute zenbait abestitan.

### Liburuxka eta gehigarria

CDa eta zintarekin batera dagoen liburuxkan abestien hitzak, jolasen azalpenak eta jolasen argazkiak biltzen dira. Argazki horiek Orioko herri ikastolako ikasleei ateratakoak dira.

Horrez gain, aldizkari honetako gehigarrian hori guztia jasotzeaz gain, pailazoen eta haurren arteko elkarrizketak ere irakur daitezke. Horrek lanari



zuku gehiago ateratzeko aukera irekitzen du: abesti eta elkarrizketak entzun eta ulertzeko ariketak eginez, erritmoa landuz, nola jolasten den ikasiz, jolasak nola egoki ditzakegun aztertuz, eta gidoiak hartu eta antzeztuz.

### Helburua euskaraz jolastea da

Haur-jolasen abestiak I kaleratu zenetik bost urte pasa dira eta geroztik hainbat material kaleratu dira jolasen inguruan: zenbait udalek egindako kantu bildumak, Haur-jolasen abestiak II, Zatoz jolastera! bideoa, Urtxintxa Eskolaren Euskal jolasen bilduma CD-ROMa...

Materialekin batera, hainbat ekimen ere burutu dira: Sortzen-Ikasbatuaz Euskaraz Mintza proiektua, Hik Hasik eta Urtxintxa Eskolak ikastetxetan eta euskara elkarteetan eskaintzen dituzten jolasen ikastaroak...

Modu batera edo bestera, ikasleak, gurasoak, irakasleak, hezitzaileak eta gainerakoak jolasen inguruan murgildu dira, jolasten aritu dira, eta denak euskaraz. Hori baita guztien azken helburua, euskaraz jolastea.

### Abenduan bigarren bideoa kaleratuko dugu

Hik Hasin musika eta jolasaren inguruan murgilduta jarraitzen dugu eta orain arte egindako lanari beste ekarpen berri bat egingo diogu: jolasen bigarren bideoa zuen eskura egongo da abenduan! ●



# Ikasmaterialak



## Txanela Proiektua

Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako ikasmaterial globalizatua


Maddalenek -Orioko neskatilak eta Ferminen - Bianako mutikoak-, Urdintxo guakamaioa eta Pox artzain zakurraren laguntzaz, birraitonaren ametsa betetzea dute helburu: museo bat eraiki nahi dute. Birraitonaren *Denboraren makina* konponduko dute eta denboran eta espazioan hainbat bidaia eginez, ikerketatxoak garatuz, informazioa bilduz, proiektutxoak garatuz... museorako piezak eskuratuko dituzte.

Komiki bidez aurkeztutako istorio hauen inguruan eraikia izan da Ikastolen Elkarreak eta Elkarlanean argialetxeek beren proposamen curricularren eta materialen etengabeko berrikusketa eta eguneratzearen ondorioz aurkeztu diguten Lehen Hezkuntzako Txanela proiektuaren 1. zikloa.

Urteotan Lehen Hezkuntzan lanean jardun duten profesionalekin kontraste lana burutu eta azken ikerketa pedagogikoetatik ateratako hainbat ondorio aztertu eta esperimentatu ondoren buruturiko lana da.

**Txanela proiektuan, Globalizazioaren** irizpidea aplikatzearen aldeko apustu metodologikoa egin da Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako. Eta irizpide horren baitan integratu dira hainbat euskarri: liburua, hiztegia, material osagarria, matematika, bideoa, abestiak,

CD-ROMa... Guztietan komikiko pertsonaien gorabeherak osatzen dute historia edo ardatza, eta garatzen den sekuentzia tematikoan zehar hainbat arlo eta izaeratako edukiak euskarri askotarikoen bidez lantzen dira. Berrikuntza nabarmen bezala aipagarria da ikasmaterialgintzan lehenengo aldiz gaien lanketaren sekuentzian erabattxertaturiko CD-ROM interaktiboa eskaintzen dela. Aukera hori hurren aniztasunari eta hainbat beharrei erantzuteko baliabide bezala proposatzen da.



Gaien trataera bera ere, ez da ohikoa. Hemengo eta gaurko eduki eta gaiak lantzeaz gain, pertsonaiek denboran eta espazioan egiten dituzten bidaietako garaiak ere aztertzen baitira: dinosauroen garaia, lehen gizakia, Antzinako Grezia... Trataera horrek, oinarrizko edukiak gorde eta lantzeaz gain, haurrari inguruaren beste ikuspegi bat eskaintzen dio, eta batez ere, bere motibazioan eragin zuzena sortzen du aurtengo ikasturtean aurrera eramanean duen talde esperimentalean ikusi den bezala.

Bestetik, ikaskuntza esanguratsua eta eraikitzailea bideratzen da proiektutik. Horrela, unitateen interesgunearen inguruko garapen globalean oinarrituz, gaiak eta horren inguruko testuek sortzen dituzten testuinguruak (haurren bizipenak eta beharrak barne) erabiltzen dira Txanela proiektuan proposamenari zentzua emateko. Izan ere, haurren globaltasuna alderdi afektiboaren, kognitiboaren eta somatikoaren elkarketa bezala kontsideratzen da. Alderdi horiek zaintzeko interakzio estiloa eta horiekin erlazioa duten hainbat jardura proposatzen dira. Aipatu interakzioaren muina, *haurra entzutean* datza. Etengabe aktibatzen dira haurra espresatzeko aukerak. Haurren hipotesiak, sentipenak, iritziak eta abar elkarjartzeari dagokion balioa emanez garatzen dira Txanela proiektuko proposamenak. Ikaslea eta irakaslearen nahiz ikasleen arteko interakzioaren deskribapenak ere badu bere tokia proiektu honetan, eta aldagai nagusi bezala tratatzen da, taldekatzearen nondik norakoak ere txertatzen direlarik.

Eraitza berari baino prozesuei garrantzia ematearen ideia etengabe azpimarratzen da, eta prozesua ematen ari den unean sortzen den aprendizaiari egiten zaio so, zenbaitetan prozesua bera delarik helburu. Adin hauetan haurrak bere autonomia, bere kuriositatea, iritzi trukaketa, ekimena eta abar garatzea beste hainbat eduki bezain garrantzizkoagotzat jotzen da Txanela proiektuan.

Arrazoiketa aktiboa bultzatzeko asmoz, era sistematikoan problemen ebazpenerako **ideal** prozedura eta hizkuntzaren funtzioen aktibazioa landuko dira **toughen** hizkuntza funtzioen sailkapenaren bidez.

Oso kontuan hartzen den beste alderdia, **haur, irakasle eta gurasoen arteko harremana da eta horri bultzadaxo bat eman asmoz eta ikastetxe bakoitzak dituen ohituren osagarri modura, hainbat tresna eskaintzen dira.**

**Gurasoekiko harremana** bi zutabe hauen inguruan eraikitzen da: **informazioa** eta **elkarlana**, eta irakaslearen gidan proposatzen dira horretarako bitartekoak.

### Hizkuntzaren trataera

Hizkuntza komunikazio tresna bezala ikusten da Txanela proiektuan, giza ekintza bezala, egoera desberdinetan eta funtzio desberdinetarako erabiliz eraikitzen dena. Hizkuntzaren garapenerako oina-

riak hizkuntza beraren erabilera esanguratsua eta erabilera horri buruzko hausnarketa izango dira. Beraz, komunikazioa izango da irakaskuntza-ikaskuntzaren estrategia nagusia, eta ondorioz, lan eduki nagusiak hainbat giza erabilera izango dira: pertsonen arteko harremanak, literatura, ikaskuntza, komunikabideak, instituzioekiko harremanak... Erabilera horietatik sortutako testuen lan-ketan eta komunikazio ekintzaren inguruko hausnarketan gauzatuko da hizkuntz trebezia nagusien garapena. Aipatutako ikuspegi komunikatibotik, hizkuntza idatzia komunikazio sistema berezia kontsideratzen da Txanela proiektuan bere funtzio eta ezaugarri propioekin, eta haren lan-ketarako abiapuntua bizitza errealean sortzen diren idatzizko erabilerak dira. Erabilera horietatik abiatuta, trebezia idatzien garapena -irakurketa eta idazketaren garapena- ikuspegi eraikitzailetik bideratzen da. ●



### Euskarriak:

- Unitateen liburuxkak
- Material osagarria (proiektuak garatzeko)
- Hiztegitxoak olerkiekin
- Hizkuntzako lan-koadernoak
- Irakurgaiak
- CD-ROM interaktiboa
- Abestien CDA
- Musikako lan-koadernoak
- Musika ariketen CDA
- Matematikako liburua
- Matematikako lan-koadernoak
- Matematikako CD-ROM interaktiboa
- Irakaslearen gidak


# Argitalpenak



## Udako koadernoia

Josep Ramon Vidal i Cosialls  
Alberto Cascante Díaz  
Ibaizabal

Ibaizabal argialetxeak udan lantzeko koaderno berriak prestatu ditu. 8 urteko haurrei zuzenduta daude eta arlo hauek lantzen dira: Euskara, Inguaruaren Ezaguera, Matematika eta Gaztelania. Koadernoen lokarria Pipo izeneko hipopotamo txiki bat da. Berak aurkezten eta gidatzen ditu ariketa gehienak. Modu horretara, argitalpena entretenigarria eta atsegina da •



## Arreba txiki bat dut, eta zer?

J. M. Olaizola "Txiliku"  
Elkarlanean

Iñakik arreba txiki bat edukiko du laster. Alde batetik, oso pozik dago, baina, bestetik, baditu bere kezkek ere, bere lagun Manueltxok berotu baitio burua arreba txikiei buruz gaizki hitz eginez. Planteatutako arazoari irtenbide egokia ematen saiatzen da egilea, era baikor eta umoretsuan. Haurrentzat bilduma egokia da, eta baita guraso eta irakasleentzat ere •



## Usoa lehen kanpamendua

Patxi Zubizarreta  
Erein


Udako giroan beten-beteen murgiltzen den liburu honen istorioa udako kanpamendu batean gertatzen da. Usoa bere lehen kanpamendura doa Irati lagun minarekin. Gauza asko egin nahi dituzte han: suaren inguruan eseri, neska-mutil gehiago ezagutu... baina ez dute inondik ere imajinatuko pertsonaia harrigarriak, desagerketak, lapurretak eta abar ikusi eta biziko dituztenik •



## Xivaren malkoak

César Mallorquí  
Giltza

*Periskopio* bildumako liburu honek eskuratu du Edebé sariko nobela irabazlearen saria. Honekin, egileak hirugarren aldiz irabazi du Edebé Gazte Literatura saria. Eleberriaren ildoaz zazpi hamarkadatan galdurik egondako gauza oso baliotsu baten misterioak markatzen du: fantasma, espektro, agerpen, espiritu edo dena delakoak •



## Berrikunza irakaskuntzaren antolakuntzan: zehar lerroak

Donostiako Iraksaleen  
Unibertsitate Eskola  
EHU

Liburuaren izenburu bereko jardunaldiak egin ziren Donostian apirilaren 22 eta 23an eta hango ekarpenak bildu dira liburu honetan. Besteak beste sormena, aisialdia, osasuna, kontsumoa, bakea eta bide hezkuntza aipatzen dira, eta baita gurasoen partaidetza ere •



## Haur txikientzako liburu-gida (0-6 urte)

Mondragon Unibertsitateko  
Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatean

Unibertsitate horretako Haur-Liburu Mintegiak gida hau kaleratu du haur txikientzat plazaratzen diren liburuak gomendatuz. Liburuaren sailkapena lau ataletan banatua dago: irudi liburuak, objektu liburuak, ipuin eta alegia klasikoak eta poemak, kantak eta igarkizunak •



# Hainbat arlotako berriztapen proiektuk ezagutarazi dira Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen I. Jardunaldietan

Arrakastaz burutu dira Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen I. Jardunaldiak. Hiru egunetan zehar 28 ikastetxeren esperientziak eman dira ezagutzera 365 parte-hartzaileen aurrean.

Jardunaldietan komunikazioak, azalpenak eta hitzaldiak izan dira ardatz. Guztien helburua berriztapen proiektu batzuk ezagutaraztea eta eginda dauden materialak eta lanak jasotzea izan da. Elkarren arteko hausnarketa eta sakontzea bideratu nahi izan da.

Azaldu diren proiektuak bost gaitan sailkatu dira. Lehenengoa hizkuntza prozesu integratuaren ingurukoa izan da eta horren baitan EAEko bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat ikasteko abian dauden zenbait proiektu aurkeztu dira.

Bigarren atala elkarbizitza eta ikasleen aniztasunari erantzuteko proiektuek osatu dute. Hirugarrenean informazio eta komunikazio teknologiak landu dira. Laugarrenean kalitaterako berriztapen proiektuei egin zaie leku. Eta bosgarrenean ingurumen hezkuntza izan da hizpide eta aztergai.

Parte hartu duten 28 ikastetxeak prest agertu dira interesa duen edonori erantzuteko eta beraien esperientziaren berri emateko. Horreterako, [www.gipuztik.net](http://www.gipuztik.net) web orrian jarriko dute aurkeztutako materiala. Nolanahi ere, Berritzeguneen bitartez beraien harremanetan jartzeko aukera ere badago. Hona hemen Gipuzkoako Berritzeguneen helbideak:



Gipuzkoako Berritzeguneetako zuzendariak buru-belarri aritu dira jardunaldiak antolatzen.

## **Donostia**

Tel.: 943 32 00 87

[donosgune@donosgune.net](mailto:donosgune@donosgune.net)

## **Eibar**

Tel.: 943 20 04 74

[zuzendaria@eibarpat.net](mailto:zuzendaria@eibarpat.net)

## **Irun**

Tel.: 943 62 51 44

[zuzendaritza@jaizkibel.net](mailto:zuzendaritza@jaizkibel.net)

## **Ordizia**

Tel.: 943 88 79 50

[berritzegune@ordiziagune.net](mailto:berritzegune@ordiziagune.net)

## **Zarautz**

Tel.: 943 13 06 43

[zarauzgune@zarauzgune.com](mailto:zarauzgune@zarauzgune.com)

## **Lasarte-Oria**

Tel.: 943 37 20 99

[berritzegune@oriapat.net](mailto:berritzegune@oriapat.net)





## II. Umore Grafikoko Nazioarteko Lehiaketa

Barakaldoko Udalak **II. Umore Grafikoko Nazioarteko Lehiaketa** antolatu du **Teknologia Berriak** izenpean. Parte-hartzaileek teknologia berrien gaineko (Internet, biologia, espazioa, telekomunikazioak, medizina eta abar) umore grafikozko marrazkiak aurkeztu beharko dituzte. Lanen xedea irakurleei aurrerapen teknologikoen azken mugei eta nondik norakoei buruzko hausnarketa egiteko aukera eskaintzea da.

Nahi duen orok har dezake parte eta lanak euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez daitezke. Lanak eta egileen datuak ezin izango dira e-mailez baino bidali helbide honetara: hermesbarakaldo@barakaldo.org

Epea 2002ko azaroaren 4an amaitzen da.

**Informazio gehiagorako:**

[www.barakaldo.org/hermes](http://www.barakaldo.org/hermes)

## Euskal hezkuntza sistemako ikastetxea, hezkuntza eta kalitatea aztergai dira

**Ikastetxea, kalitatearen gune** goiburuekin burutu ziren maiatzaren 20 eta 21ean Bilbon Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatutako jardunaldiak. Hezkuntza eragileen proposamenak eta iritzia biltzea zen asmoa, betiere euskal hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzea erronkatzat harturik.

Horrela, jardunaldietara hurbildutakoak sei multzotan banatu ziren eta bakoitzean egungo irakaskuntzaren alderdi bana landu eta eztabaidatu zen.

Lehenengo multzoa **hezkuntza komunitatea** izan zen. Multzo horretan sektore guztien parte-hartzearekin eta inplikazioarekin, irakaslanarekin, ikasleen eskubide eta betebeharekin eta gurasoen lankidetzarekin zerikusia duten gaiak landu ziren.

Bigarren multzoan **eskola antolamenduaren** inguruko elementurik garrantzitsuenetako batzuk eztabaidatu ziren: ikastetxeen autonomia, gobernu organoak, ikastetxearen proiektua eta hobetzeko prozesuak.

Hirugarren multzoa **eskola curriculumera** bideratu zen. Bertan oinarriko irakaskuntzako ardatz diren ira-

kasgaiak aztertu ziren, eta baita aniztasuna nola eta noiz gauzatu beharko litzatekeen ere. Mundu globalizatuan euskal curriculumak dituen ezaugarriak ere hizpide izan ziren.

Laugarren multzoan **mailaz igo-tzea, titulazioa eta ebaluazioa** aztertu ziren. Batxilergoko proba orokorra eta goi mailao heziketa zikloetarako sarbideak ere aipagai izan ziren.

Bosgarren multzoari dagokionez, **eskolak integrazio eremu** bezala jokatzen duen paperaz aritu ziren; desberdintasunak konpentsatzeko egiten duenez eta kultura anitzeko munduan aniztasunari eskaintzen dion arretaz, besteak beste. Ikasleak zein baliotan hezi behar diren aztertu zen.

Azkenik, seigarren multzoan **hezkuntza elebidunera** iristeko bidea, irakasleak euskalduntzeko prozesuak eta irakaskuntza eleanitzera iristeko erronka berria izan ziren aztergai.

Gai-multzo bakoitzean lehenik eta behin gai horietako adituek hartu zuten hitza. Maila teorikoan kokatu zituzten gai-multzo bakoitzeko alderdirik garrantzitsuenak, eta beste hezkuntza sistema batzuetakoekin erkatu zituzten. Horren jarraian eztabaiden txanda etorri zen.

## Jose Antonio Loidi ikerketa beka

Irungo Udalak **Jose Antonio Loidi bekaren** hirugarren deialdia egin du. Euskarazko ikerketa zientifikoa bultzatu asmo duen beka honek hainbat ikerketa esparru hartzen ditu bere baitan: antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika.

Proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutu behar dira. Bekaren iraupena 12 hilabetekoa izanen da eta diru laguntza 9.015 eurokoa.

Norbanakoek edo taldeek eska dezakete beka eta ikerketa lanak originala eta argitaratu gabea izan beha du. Aurkezteko epea irailaren 10etik 27ra zabalduko da.

### Informazio gehiagorako:

Irungo Udala, Euskara Zerbitzua

Tel.: 943 64 92 50

Faxa: 943 64 94 12 / 943 64 94 28

E-posta: [euskara@irun.org](mailto:euskara@irun.org)

[www.irun.org](http://www.irun.org)



CDa eta zinta  
**dagoeneko**  
**SALGAI!**